

Golden Apple Quartet

Amaiako entzuleak barrez jarri zituzten
KULTURA, 26



Aloñak 0-1 irabazi dio Mondrari derbian

UDAk 1-0 irabazi zion zapatuan Errenteriako Touring taldeari
KIROLA, 14-15

Atom Rhumba

Kike Turmixen jaian izan ziren
KULTURA, 24-25



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko otsailaren 27a • 3. urtea • 91. zenbakia • 0,90 euro

Aratuste-domeka arrakastatsu baina bustia atzo Aretxabaletan

'Tejero'-k eta 200 kolpistak plaza hartu zuten, eta kulturaren alde herri ekimena eskatu zuten

ARATUSTE-MARTITZENA
Bihar Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin ospatuko dituzte Aratusteak

URPEKARIA IRABAZLE
Aretxabaletako Aratuste lehiaketa UDA taldeak irabazi zuen 'K-141' urpekariarekin

AFARI ETA BAZKARIAK
Eskoriatzan, Gatzagan eta Arrasaten egin dituzte. Zapatuan egin zituzten aterpean, jakina

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende dezente animatu zen mozorrotzera Aretxabaletako Aratuste-domekan. Tejero-k estatu-kolpea egin zuen, Udalak koardilekin izan duen jarrera salatzeko. Biharko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Arrasate, Eskoriatza, Bergara eta Oñatin. **7-10**



Aretxabaletan atera ziren *Brave Heart* filmeko borrokalaria, eta Tejero-ren estatu-kolpean ere parte hartu zuten, herriko plazan.

JOSETXO ARANTZABAL

M^a Jose Gilentzat Euskadiko txapela

Arrasatearrak Beteranoen Kros Txapelketa irabazi zuen atzo Araian

Urrezko dominarekin itzuli zen atzo, domeka, Araitatik (Araba) 65 urtetik gorakoaren kategorian lehiatzen den lasterkari arrasatearra.

19 minutu behar izan zituen Gilek 3.600 metroko ibilbidea egiteko. "Proba gogorra izan da", zioen. "Hotz handia egiten zuen". **21**

Bilkurak Gameiko langileen alde

Presio bide gisa egunero egingo dituzte 18:00etan, Laubide plazan **6**

Saharako herriaren alde kalera

Errepublikaren 30. urteurrena da gaur, eta bilkurak egingo dira 19:30ean **4**

Hiru preso aske geratu dira egunotan

Karmen Irizar antzularra atzo ezkerero dago etxean, kondena osoa bete eta gero. Gaizka Azkarate eta Saioa Alzua, berriz, egubakoitzean itzuli ziren Arrasatera, 30.000 euroko fidantza ordainduta.

Hirurei datorren asteburuan egingo diete ongietorria. **5**

GEUREAN

- Eguenean egin zuen alkate karguaren zina Lourdes Idoiak Oñatin | 6
- Egubakoitzean zabalduko dute berriz gatzetxea Antzuolan | 11



Abadetu zela 50 urte bete berri ditu Karlos Urbieta fraide frantziskotarrak | 6

ZAHARREN EGOITZAK



ARTXIBOA

Egoitzara sartu zirenean euren kabuz jarduteko gai baziren ere, urteek aurrera egin ahala dependente bilakatu dira gure nagusietako asko. Hala, beharrezko egin da egoitzak egokitzea.

IBARREKO EGOITZAK | OÑATIKO SAN MARTIN EGOITZAN HASI DIRA DAGOENENKO LANAK ETA ARRASATEKO ITURBIDEN IRAILEAN HASIKO DIRA

Nagusi dependenteen beharretara egokitzen ari dira ibarreko egoitzak

Egokitze integrala egingo zaie. Erabiltzaileek adinean gora egin dute, eta sartu zirenean euren kabuz ibiltzeko gai baziren ere, mugikortasuna galtzen joan dira

Monika Belastegi

Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatuak adierazi zuen aurreko astean Foru Aldundiak 13.000.000 euroko laguntza bideratuko duela 2006. urtean egoitzak pertsona nagusi dependenteen beharretara egokitzeko. Hamalau dira laguntza hori jasoko duten egoitzak, tartean, Oñatiko San Martin eta Arrasa-

teko Iturbide egoitzak. Bestalde, Foru Aldundiak aurreikusten du 2008. urterako Gipuzkoan dauden 65 egoitzak egokituta egongo direla hirugarren adineko pertsona dependenteen beharretara.

Izan ere, urteekin batera aldatzen joan da egoitzetako erabiltzaileen profila: adinean gora egin ahala autonomia galtzen joan dira; batzuek muletak dituz-

te, beste batzuk gurpildun aulki-an daude, beste hainbat ezin dira ohetik jaiki... Gero eta adindun dependente gehiago dago, eta egoitzarik gehienak pertsona autonomoendako pentsatuta daude. Horrek ekarri du egoitzek erabateko egokitzapenak behar izatea, erabiltzaileen profil berrietara egokitzeko eta ahalik eta zerbitzurik egokiena eskaintzeko, Euskadiko Gerontologia Planaren irizpideei jarraituz.

OÑATIKO ETA ARRASATEKO EGOITZAK

Eusko Jaurlaritzak onartutako 1998/41 dekretuak arautzen du nola egokitu behar diren egoitzok, eta Oñatiko San Martin eta Arrasateko Iturbide egoitzak bide horretan daude.

San Martin egoitzari dagoeneko, irailean hasi ziren lanak. Hirugarren eta laugarren solairuetan egingo dituzte lanik handienak, nahiz eta, oro har, etxe

Egoitza gehienak pertsona autonomoendako pentsatuta daude

Jaurlaritzaren 1998/41 dekretuak arautzen du nola egokitu behar diren zaharren egoitzak

guztitan egin beharko dituzten zenbait berrikuntza, oztopo arkitonikoak ezabatze eta suteen kontrako larrialdi arauetara egokitzeko, besteak beste.

Lanik garrantzitsuena eta berritzaileena da hirugarren solairuan egiten ari direna. Goitik behera berrituko dute eta Unitate Psikogeriatrikoa egokituko dute hantxe, alzheimerre edo bestelako buruko gaitzak eta jarrera arazoak dituzten pertsonendako.

Laugarren solairua ere goitik behera berritzen ari dira: lehenengo bainerak kentzen ari dira eta instalazioak modernizatzen. Bestalde, dauden 17 gelak berritu egingo dituzte eta horiek pertsona autonomoendako bideratuta egongo dira.

ZAHARREN EGOITZAK

Oñatiko San Martin egoitzan hasi dira lanak eta udan bukatuko dituzte

Arrasateko Iturbide egoitzan irailean hasiko dira egokitze lanak eta bi urte inguru iraungo dute

Irailean hasi ziren lanak eta uda alderako bukatuta egongo direla azaldu du Susana Zaballos egoitzako administrariak. LKS ari da lanok egiten, eta hango arduradunak esan digunez, oraingo, batik bat, hirugarren eta laugarren solairuetan ari dira lanean. Iturgintza eta elektrizitate lanak oso aurreratuta daude eta igeltserezarekin hasi berri dira.

Lanon aurrekontua 952.000 euro da. Kostuaren %75 Foru Aldundiak hartuko du bere gain, eta gainerakoa egoitzako fundazioaren fondoekin eta Kutxak emandako laguntzekin egingo da.

ITURBIDE EGOITZA

Arrasateko Udala ere Iturbide egoitza egokitze bidean dago; egoitzaren batzordeak zaharber-



JOSETXO ARANTZABAL

Irailean hasi ziren Oñatiko San Martin egoitza egokitze lanak. Sei edo zazpi hilabetean bukatuta egongo dira.

ritze integrala egitea premiazkoa dela uste du. Dagoeneko proiektua egin dute –Javier Egaña arkitektoak egin du– eta Obra eta Hirigintza batzordeek dute esku artean aztertze. Iñigo Garitano Iturbide egoitzako arduradu-

naren esanetan, irailean hasiko dira seguru asko lanak, eta bi urte inguru beharko dira bukatzeko. Izan ere, egoitza hustu barik egingo dituzte lanak, zatika.

Estalkia konponduko dute, geletako bainugela eta komunak

zaharberrituko, erizaintza eta botika bereizi egingo dituzte, Fisioterapia gela berria egingo dute eta egoitzara sarrera berria egingo dute, besteak beste. Bestalde, beheko solairuan dagoen Abaroa elkarte atera egingo du-

te handik eta Etxaluze baserriaren orubean egingo den eraikinerako eroango dute.

Lanok hiru milioi euro inguruko aurrekontua dute eta Aldundiak kopuruaren %75 ordainduko du.

Unitate Psikogeriatrikoa egingo dute Oñatiko egoitzako 3. solairuan

Oñatiko Udala aspalditik zebilen Unitate Psikogeriatrikoa eraikitze asmoarekin. Eta azken urteotako joera denez halako unitateak zaharren egoitzetan integratzea, San Martingo eraberritze lanak aprobetxatu dituzte 3. solairuan egokitze Unitate Psikogeriatrikoa. Funtzionamendu autonomoa izango du, eta sarrera eta irteera kontrolatuta egongo dira. Hamabost lagunendako tokia egongo da eta jangela eta egongela ere izango ditu. Unitateko langileak arlo horretan espezializatuak izango dira.

Ibarreko egoitzetako erabiltzaile gehienak ere dependenteak dira

Erabiltzailearen profilararen aldaketa gurean ere nabari da: gehienak dependenteak dira. Arrasateko Iturbiden, kasu, 98 nagusi daude (98rendako lekua du) eta 13 baino ez dira autonomoak. Eskoriatzako Mesedeetako Amaren kasuan, 39 lagun daude eta 20 dira dependenteak. Oñatiko San Martinen 83 lagunendako lekua dago (gaur egun 59 lagun daude obretan daudelako) eta 20 bat dira autonomoak. Aretxabaletako egoitzak 24 erabiltzailerendako tokia du (beti dago beteta) eta Bergaran, 107 nagusi daude.

600.000 euro adineko pertsonak zaintzen dituztenendako

Gizarte ekimenerako laguntza planaren barruan 600.000 euroko laguntza onartu du Foru Aldundiak. Modu horretan, lagundu egin nahi die pertsona ezgaitu, adineko ezindu eta babesik gabeko adin txikikoekin lan egiten duten irabazi asmorik gabeko Gipuzkoako elkar-teei. Dirulaguntzok jaso nahi dituzten elkar-teeek martxoaren 28a baino lehenago egin behar dute eskaria Gizarte Politikarako Departamentuko bulegoetan (Zarategi pasealekua 99, Donostia).



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

30 URTE | FRONTE POLISARIOAREN ETA SAHARAKO ERREPUBLIKAREN 30. URTEURRENA OSPATZEKO JAIALDIA

Sahararen alde jaialdi polita egin zuten Bergaran

Bergarako Labegaraietako kiroldedia Saharako kanpamentu bihurtu zen zapatuan, Bubisher elkartearen eskutik

Marijo Deogracias

Saharan kanpamentuak eraiki zirela 30 urte bete dira gaur, otsailak 27, eta horixe gogoratzeko eta behingoz herri horren independentzia eskatzeko, jaialdia egin zuten Bergaran.

Bibi Andueza Bubisher talde antolatzaileko kideak adierazi zuenez, "Nazio Batuei eta Europako gobernuari adierazi behar zaie badela ordua aurpegia garbitzen aritu ostean postura argia hartu eta konpromisoa hartzeko. Eta Espainiako Gobernuari eskatu bere ardurak ez lagatzeko alde batera, hura baita Saharako herriaren sufrimenduen arduraduna". Horrelako mezuak entzun ziren jaialdian zehar antolatzaileen aldetik, bai eta Gasteiz, Getxo, Leioa, Audio eta Amurriotik etorri ziren sahararren aldetik ere.

ESKARIAK

"Gure lanaren ordainaz libre izan dadin Sahara" abestu zuen Eñaut Uriarte bergararrak ekitaldi politikoaren amaieran. Ildo beretik, Fronte Polisarioko ordezkari Mohamed Mamun A. Brahimek "gure kausarekiko elkartasuna da behar duguna", adierazi zuen. Sidi Mohamed Balla preso politikoak bidalitako gutuna ere irakurri zuten: "Marokoko erregeari presoak askatzeko eskatu nahi nioke eta eskerrak

eman gure intifadaren alde egin zutenei", zioen gutunean.

Urteurreneko eguna dela-eta, kontzentrazioa deitu dute gaurko 19:30ean Euskal Herriko herri guztietan.

Bestalde, *Oporrak Bakean* programan parte hartzeko dei egin dute dagoeneko. Izenematea martxoaren 30a baino lehen egin behar da, Arrasateko Nubi Elkartearen (685 72 48 16, 685 72 48 17 eta 685 72 48 18).




Euskal Herrian bizi diren emakume sahararrek girotu zuten zapatuko jaialdia.

JOSETXO ARANTZABAL

• BERGARAKO KIROLDEGIAN HARTUTAKO HAINBAT UNE



OHOREZKO AURRESKUA. Ekitaldiaren hasieran dantzatu zuten ohorezko aurrezkua, emakumezkoen oihu artean. Txistulariaren doina ia-ia entzun ere ez zen egiten. Aurrezkuaren ostean berba hartu zuten antolatzaileek eta Fronte Polisarioko ordezkariak.



TE ORDUA. Hiru haima prestatu zituzten Bergarako Labegaraietako kiroldedian eta han gertatu zuten, eguerdi aldera, tea. Emakumezkoak izan ziren, ohi denez, tegileak, eta hara hurbildu ziren gizonzkoak tea gertu zegoenean.

• EKITALDI POLITIKOAN PARTE HARTU ZUTEN

IRIARTE

Umeen
denda
•
Helduen
lentzeria




Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAleta



OLAIA SAGREDO |
EUSKADIKO KOORDINADORA

**"Nahikoa da!
oihukatzeko garaia da"**

Euskadiko Koordinakundearen izenean *Otsailak 27-Euskadi Sahararekin koordinakunde*a laster aurkeztuko dutela aurreratu zuen Olaiak, "Sahararen alde lanean ari garen elkarte guztien lana koordinatzeko. 30 urte nahiko dira eta bada garaia *Nahikoa da!* oihukatzeko" esaten amaitu zuen parte-hartzea.



MOHAMED MAMUN A. BRAHIM |
FRONTE POLISARIOA

**"Nazioarteko legalitatea
betetzen hasteko sasoia da"**

Preso politikoak gogoratzeko minutu bateko isilunea eskatu ondoren kanpamentuen historiata egin zuen eta emakumeek egin duten lana aldarrikatu zuen. "Erreferendumen zain jarraitzen dugu eta nazioarteko legalitatea betetzen hasteko sasoia da. Gure alde egin, independentzia lortuko dugulako".



Karmen Irizar (erdian) senarra ondoan duela atzo arratsaldean.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Etxean da atzotik Karmen Irizar preso antzuolarra

Barikuan ibarreko beste bi preso ere askatu dituzte: Gaizka Azkarate eta Saioa Alzua arrasatearrak, hain justu ere

Jon Berezibar

Debagoieneko hiru preso heldu dira etxera asteburu honetan. Lehenak iristen Saioa Alzua eta Gaizka Azkarate izan ziren. Arrasatear horiek egubakoitzean heldu ziren herrira. Karmen Irizar antzuolarra ere aske geratu zen atzo, zigor osoa bete ostean. Datorren asteburuan egingo dizkiete hirurei ongietorriak Arrasaten eta Antzuolan.

Saioa Alzua eta Gaizka Azkarate egubakoitzeko gauerdia pasatuta iritsi ziren Arrasatera,

bila joandako senideekin batera. Ordurako 400 bat lagun zeuden Seber Altube plazan zain. Preso ohi biei harrera egin eta lore eskaintzaren ostean Portaloian eta Irati tabernan zeuden euren argazkiak kendu zituzten preso ohiek, ohitura den moduan. 2003ko azaroa ezkeron egon dira espetxean, Saioa Brievakoan, Avilan, eta Gaizka Navalcarneron, Madrilen. Biek baldintzapeko askatasunarengatik 30.000 euro ordaindu behar izan dituzte. Askatasunetik jakinarazi dute datorren egubakoit-

tzean, martxoaren 3an, egingo dietela ongietorria, 19:30ean, Herriko Plazan.

KARMEN, ATZO EZKERO ASKE

Karmen Irizar preso ohiari dago-kionez, atzo irten zen Valladolidedeko kartzelatik. Zigor osoa bete du Karmenek, bost urte eta sei hilabete, hain zuzen ere, eta inkomunikazioa eta torturak salatu ditu preso egon den bitartean. 1998 urtean atxilotu zuten guardia zibilek Karmen, kalean, eta hainbat espetxetan egon da Antzuolako preso. 1999an askatasun probisional lortu baina handik hilabete batzuetara berriz atxilotu zuten. Lehen harrera atzo bertan egin bazioten ere, datorren zapatuan egingo diote ongietorria herrian.

Gisasola da Etxetresnen zuzendari berria

M.D.

Txema Gisasola izango da aurrerantzean Fagor Etxetresna Elektrikoak taldeko zuzendari orokorra. Hala, Pablo Mongelos ordezkatu du (aurrerantzean, MCCren zuzendaritzako kide izango da). 43 urte ditu eta lizentziaduna da Psikologia Industrialean.

1987an sartu zen Fagorren, organizazio teknikari. 93an Danonako Giza Baliabideetako zuzendari izendatu zuten eta 97an kargu berarekin sartu zen Etxetresna Elektrikoetan. Gaur egun, korporazioko lehendakari-ordea da eta Etxetresna Elektrikoak taldeko Proiektu Estrategikoen eta Enpresa Kulturaren gerente, besteak beste.

Birziklatze kanpainaren sariak banatu dituzte

A.G.

Egunerokoak ez diren hondakinak jasotzeko zerbitzua ezagutzera emateko kanpainarekin lehiaketa egin du Mankomunitateak. Hainbat sariketa egin dira eta antolatzaileek adierazi dutenez, "gustura gaude partaidetzarekin. Jende asko animatu da lelo, txiste, aholku eta asmakizunen lehiaketetan parte hartzea". Kanpaina barruan 8-10 urteko ikasleak eskolarik eskola dabilzan hiru puzzle erraldoi egiten ari dira.

Sarituak

- **LELOA**
Arantzazu Intza, Oñati.
- **AHOLKUA**
Cristina Irizar, Bergara.
- **ASMAKIZUNA**
Irati Olaziregi, Bergara.
- **TXISTEA**
Jone Agirre, Oñati.
- **BERTSOA**
Josune, Nerea eta Nerea, Oñati.
- **HITZ EZKUTUA**
Mikel Zubizarreta, Eskoriatza.



Cristina Irizar (ezkerrean) hondakinak bereizteko zabor-ontzia jasotzen.

MANKOMUNITATEA

Otsailaren 27a:
077 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 27, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeuren izen zaitzake hurrengo zozketako irabazleatiko bat!

076 zozketako saridunak

Sei gonbidapen
EIBAR-MALAGA "B"
futbol partidurako.
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).


- Jokin Errasti Ruiz (Bergara)
- Javier Osa Isasti (Oñati)
- Begoña Zubizarreta Bolinaga (Bergara)
- Javier Carmona Ramos (Arrasate)
- Javier Elorza Alegre (Eskoriatza)
- Jose Miguel Eraña Garratzazu (Antzuola)

Bi gonbidapen

Donostiako
AQUARIUMa
bisitatzeko
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Miguel Elorza Etxaspe (Aretxabaleta)
- Iñigo Heriz Unzueta (Aramaio)

- Bi gonbidapen Elgetako **ESPALOIAN** izango den dantza ikuskizunerako:
BIARRITZ BALETA (Junior).
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



- Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMa** bisitatzeko.
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:

36 euro
2006 bukaera arte

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Donostian, gutxieneko bi akziodunetako baten etxe aurrean egin zuten elkarretaratzea zapatuan.

Gameiko langileak: "Kale itsu batean gaude eta arazoa bi akziodunak dira"

Presio modu gisa egunero bilkurak egingo dituzte egunero 18:00etan Laubide plazan. Arrasatearrei elkartasuna eskatzen diete

Monika Belastegi

"Kale itsu batean gaude eta arazoa gutxieneko bi akziodunak dira". Hala deskribatzen du Iñaki Zabalak, Gamei lantegiko enpresa-komiteko presidentek, langileek gaur egun bizi duten egoera: "Batetik, gutxieneko bi akziodunei dauzkaten akzioen %6,78atik ez badizkiegu ematen eskatzen dituz-

ten 180.000 euroak, ez dute ezer mugitzeko borondaterik erakutsiko. Bestetik, horrek gainerako akziodunekiko diskriminazio tratua ekarriko luke, eta gainerako akziodunek tratamendu bera exijitzen digute". Zabalak gehitu du gainerako akziodunek ez luketela ulertuko "langileok 180.000 euro horiek ematea akzioen %6,78rengatik eta %30 duenari ezer ez ematea.

Gainera, akziodun guztien alde-tik borondatea dago jabetza modu sinbolikoan Fagorri emateko, betiere akziodun guztien sinadurarekin".

MOBILIZAZIOAK EGUNERO

Protesta eta presio bide moduan elkarretaratzeak deitu dituzte egunero, 18:00etan, Laubide plazan, eta arrasatearren elkartasuna eskatu dute.

Zapatuan Donostian egin zuten elkarretaratzea eta Carmen Etxebarriaren -gutxieneko bi akziodunetako bat- etxe aurrean zabaldu zituzten pankartak langileek.

Zarautzen sortu zen, hango Bar Mondragonesen ondoan. Sei urte daramatza Arrasateko San Frantziskon

(aurretik 9 urte egon zen) eta zapatuko mezan ospatu zuten abadetu zela 50 urte bete direla.

KARLOS URBIETA | ORAIN DELA 50 URTE ABADETU ZEN

"Aita Serafinekin organoa jotzen nuen Arrasaten"

Marijo Deogracias

Zorionak, Karlos.

Bai, arin pasatzen da denbora. Niri behintzat azkar pasatu zaizkit 50 urte.

Arantzazuko seminarioan ikasi zenuen Teologia.


Bai, hara joan nintzen 11 urterekin. Gogoan daukat abade izendatu gintuzten egunean, beste 15 lagunekin batera, sekulako elurtea egin zuela eta gotzaina (Jaime Font y Andreu) ezin izan zela Arantzazura igo; gu geu jaitsi ginen Oñatira. Hango parrokiari abadetu nintzen orain dela 50 urte.

Nora bidali zintuzten lehenengo?

Erroman lau urte egin nituen Teologiako lizentziatura egiten eta gero Errioxara, Alfarora, bidali ninduten. 12 urte egin nituen hango nagusi legez. Gero Arrasatera etorri nintzen, frantziskotarrenera. Hemen 9 urte egin nituen eta gero Segurako parroko legez egon nintzen beste sei urte. Handik Erriberrira (Olite), sei urte, eta jada beste sei daramatzat hemen Arrasaten.

Aukeratzekotan lekuren batekin geratuko zinateke?

Toki guztietan ikasten da zer-bait; ikasi nahi duenak bai, behintzat. Hala ere, eta lagun batek egindako galderari erantzunez, Zarautzera edo Arantzazura joango nintzateke, azkeneko lekuren bat aukeratu beharko banu. Urte asko egin nituen Arantzazun. Elurte gogorrak bizi izan ditut han; hamalau negu gogor bizi



JOSETXO ARANTZABAL

izan nituen han. Izan ere, orduan ez zegoen elurra kentzeko horrenbeste makinarik!

Frantziskotarrenera noiz etorri zinen lehenengoz?

1954ko maiatzean hemen izan nintzen Arantzazuko abesbatzarrekin. Orduan sartu ziren eurak hona, eta egun handia izan zen. Leandro Abarrategik egin zuen meza eta *Basarri* bertsolaria ere etorri zen egun hartan. Harrezkero hainbat aldiz etorri izan naiz Arrasatera, hona bidali aurretik, organo-jotzaile. Aita Serafinekin organoa jotzen nuen hemen.

Mondragoetarren artean gustura, hortaz.

Jende jatorra dira. Bizkaiko tenperamentu pixka bat badaukate bai mondragoetarrek. Gustura eman dut denbora hemen.

• LOURDES IDOAGAREN KARGU-HARTZEA



M.B.

EGUNEAN EGIN ZUEN KARGUAREN ZINA OÑATIKO LEHEN EMAKUME ALKATEAK

Alkate berria du Oñatik eguena ezkerreko. EAJ-EAren aldeko botoekin (12) ekin dio Lourdes Idoagari ibilbideari. PPKo zinegotziak bere buruari eman zion botoa eta PSE-EE eta EB-Berdeak taldeko zinegotziak berandu iritsi eta ez ziren bozketan izan. Aretoa beteta zegoen eta herritar ugari babesa jaso zuen Idoagari. Ereitten plataformako kide eta beste hainbat herritarrek jasaten duten "apartheida" gogorazari zuten. Bilkura ostean orain arteko alkate Andoni Gartziaren besarkada beroa jaso zuen Idoagari.

• 'NOTICIAS DE GIPUZKOA'



U.A.

EGUNEAN AURKEZTU ZUTEN ESKORIATZAN

Ibarreko erakundeetako eta kultura eta kirol elkarteetako ordezkariaren aurrean aurkeztu zuten, Mendigoia hotelean. Arantzazu Zugasti zuzendari-albokoak eta Guillermo Gurrutxaga *Vecinos* saileko buruak egin zituzten aurkezpenak. Goiko irudian Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoa eta Anabel Dominguez eskualdeko ordezkariaren.

'Tejero'-k estatu-kolpea egin du Aretxabaletan, herriak lagunduta

Herri kulturaren aldeko aldarrikapena egin zuten atzo ekintzarekin Aretxabaletan

Euriak ez du treguarik eman asteburu osoan; hala ere, jendea kalera atera da

Bihar Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan ospatuko dira Aratusteak

M. Belastegi/M. Deogracias

Tejerok: "Quieto todo el mundo!".
Menak: "Orain 4 hilabete Aratusteak hobetzeko koadrila batzuk elkartu ginen. Udalari proposamena aurkeztu genion eta erantzuna ezetz izan zen. Kulturaren inbertsioak behar dira!".

Aldarrikapen oihuak entzun ziren Aretxabaletako Inauterietako domekan. Herriko plaza 200 bat lagunek hartu zuten. *Tejero* buru zutela, han ziren armada-koak, *Brave Heart* filmeko guda-riak, Mexikon TNT leherkariak jartzen zituztenak, asaltoko urpe-
kariak eta beste hainbat aretxabaletar gazte, F-23+3 Ekimenak deituta. Azaroa ezker herriko Aratusteak elkarlanean antolatzeko ekimenari Udaletik jasotako erantzun eskasa salatze-
ko asmoz egin zuten aldarrikapena gazteek, sekulako jai giroan.

EURIA GOGOTIK

Eguraldi eskasari aurpegi alai jarri zioten aretxabaletarrek atzo. A ze erremedio, atertu barik egon zen-eta egun guztia! Eta zapatuan ere gauza bera: euria gau partean! Aterpean izan ziren eskoriatzarrak eta arrasatearrak herri bazkarian eta baita gatzagarrak ere herri afarian. Aramaioko txikienek txokolate beroa hartzeko aukera izan zuten hotzari aurre egiteko, eta Bergarako umeek Pirritx eta Porrotx pilotalekuan. Oñatin eta Antzuolan, berriz, dantzariak jarri dute Aratuste giroa. Atzo Luzaideko Inauteriak antzeztu zituzten Oñatz dantza taldekoek Oñatin, eta herriko pilotalekuan babestu behar izan zuten Sorgin Dantza egiteko antzuolarrek.

Eguraldiarekin zortea izan duten bakarrak elgetarrak izan dira aurtan. Egubakoitzean mozo-
rrotu ziren-eta.

Aretxabaletako plaza 200 gaztek hartu zuten atzo, aldarrikapena jai giroan egiteko

Aratuste jaiak bihar jarraituko dute, ekitaldi dezente antolatu dituzte-eta ibarrean



Aretxabaletako plazako erlojuak 13:15ak zituenean hartu zuen *Tejero*-k herriko plaza.

ARATUSTEAK 2006



Ikusleak harritu egin zituzten Bergarako orkestrak eta bandak barikuan: pilotalekua dantzaleku bihurtu zuten.



Far west-ean ere tronpeta-jotzaile onak daudela erakutsi zuten Arrasateko ikasleek.



Errapeak bularretakoekin? Bai behi modernoak...



UDA taldeko jokalariek urpekari errusiarreko marinel bihurtu eta Aretxabaletako lehenengo saria eroan zuten.

• URTERO MOZORROTZEKO OHITURARIK BADAUKAZUE? BAKARKA ALA TALDEAN NAHIAGO?

MIMO TALDEA |
ELGETA

"Urtero mozorrotzen gara; hala ere, aurten jantzi gara lehenengoz guztiok gai beraren bueltan"

Bederatzi lagun atera ziren egubakoitzean mimoz mozorrotuta. Gustuko dute mozorrotzea eta urtero egiten dute. Hala ere, "aurten mozorrotu gara lehenengoz guztiok berdin. Orain arte, Inauterietan nor bere aldetik mozorrotu da", esan ziguten. Koadrilako Agurneri otu zitzaion mimoz mozorrotzea eta taldeko batzuk ondo baino hobeto sartu ziren paperean.

BITTOR ETA IRAITZ |
ELGETA

"Urtero atontzen dugu taberna Inauteri-barikurako"

Galaxia zatia bihurtu zuten Haizea taberna eta eurak martetarrez mozorrotu ziren. "Urtero atontzen dugu taberna Inauteri-barikurako", esan zigun Bittorrek. "Hemen, Elgetan, horixe da giro handiena dagoen eguna".

NEREA, AINHOA, DANEL, NURIA, EIDER, GORKA ETA ASIER |
ARRASATE

"Asko gustatzen zaigu mozorrotzea eta martitzenean ere galdaragile jantziko gara gure herrian, Arrasaten"

Galdaragilez mozorrotu ziren gurasoekin batera, 30 lagun guztira, eta karruaje eta guzti eramaten zuten. "Urtero mozorrotzen gara", esan ziguten, eta galdaragile mozorroa asko gustatu zaiela. Aretxabaletara urtero joaten dira Arrasatekoak izan arren, baina herrian ere mozorrotuko direla gehitu zuten: "Martitzenean ere galdaragile jantziko gara herrian".

ARATUSTEAK 2006



Halako aurpegiarekin ez zuten, bada, beldur handirik emango.



Ez musurik eman ba, argazkia ateratzen ari dira eta!

Aurten ere Aretxabaleta izan da Aratuste-jaien izarra Debagoiengan

Ez zuen lan erraza izango atzo Aretxabale-tako mozorro lehiaketaren epaimahaiak. Izan ere, mozorro ugari zegoen eta asko eta asko ondo landutakoak ziren, eta baita orijinalak ere.

Asko pentsatu eta gero, halaxe erabaki zuten: 16 urtetik gorako atalean lehenengo saria jaso zuen UDA K-141 taldeak (250 euro); animazio handien jarri zuen taldeari saria Mexikoko kantinak eroan zuen (200 euro) eta orijinaltasunarena, Eguzkiaren zirkuak (200 euro). Bigarren saria Hippy taldearen dako izan zen (150 euro) eta hirugarrena, Birziklatzeko edukion-tziendako (100 euro). Azken horri dagokionez, dei egin nahi die Udalak, ez ziren-eta saria jasotzera joan.

16 urtetik beherako arteen lehenengo saria jaso zuen Ikazkinak taldeak (150 euro); gehien animatu zuen taldearena Ziklistek (100 euro) eta orijinaltasunarena, Zigarroek (100 euro). Bigarren sariari dagokionez, Erleek eraman zuten (80 euro) eta hirugarrena, Charleston taldeak (70 euro).



Tejero-rekin batera itsaso, aire eta lurreko militar asko batu ziren Aretxabale-tako plazan. Falangistaren batzuk ere bai. 13 koadrilatako 200 bat, hain zuzen.



AITOR, EKAITZ, OIHANA, IÑIGO ETA AITOR | ARETXABALETA

“Di-da batean gaia aukeratu eta arratsalde batean prestatu genuen pailazo mozorroa”

Herriko bi koadrilak bat egiten dute azkeneko urteetan eta 20 bat lagun mozorrotu dira pailazoz. Urtero mozorrotzen dira, ez dute zalantza izpirik ere izaten, “asko gustatzen zaigu”, esan ziguten. Azkarrak dira, gainera, mozorroak pentsatzen eta prestatzen: “Di-da batean gaia aukeratu eta arratsalde batean prestatu genuen pailazo mozorroa”.



GOYI ETA AITOR | ARETXABALETA

“Mozorrorako gauzak erostera elkarrekin joan ginen”

Normalean koadrilan ateratzen dira, baina aurten “kontsensurik ez da egon” eta eurak bakarrik jantzi dira hippy. Prestaketa kontuan Goyik eroaten du ardura nagusia, “baina gauzak erostera elkarrekin joan ginen”, esan zigun Aitorrek.



MADDI, MAIDER, ALAITZ, ARIANE ETA SARA | ARETXABALETA

“Gurasoek ez, guk aukeratu dugu 'sevillana' mozorroa. Asko gustatzen zaigu mozorrotzea, gainera”

“Gurasoek ez, guk aukeratu dugu sevillana mozorroa”, esan zigun neska koadrila horrek. “Asko gustatzen zaigu mozorrotzea eta urtero egiten dugu”, gehitu zuten. Rocío Jurado eta Isabel Pantoja ez dituzte ezagutzen, eta sevillana dantza ere ez askorik, baina saiakeraren batzuk egin zituzten; baita abanikoak ondo astindu ere.

ARATUSTEAK 2006



Mexikotik kantina eta dinamitarekin etorri ziren. Aretxabaletan animazio saria jaso zuten.



Hirugarren saria jaso zuten Aretxabaletan. Birziklatzea zein garrantzitsua den ekarri zuten gogora.



Txintxo aurpegi horrekin seguru ezti gozo-gozoa egiten dutela (2. saria Aretxabaletako gazteen atalean).



Aramaioko talde honek jaso zuen herriko nagusien lehenengo saria.



Arrasateko galdaragileok aurkitu genituen Aretxabaletan. Bihar Arrasaten aterako dira horrela jantzita.

Bergarako disko-musika zaleek sahararren alde batu zuten dirua egubakoitzean

Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Udal Musika bandak egubakoitzean egindako Inauteri-kontzertuak Tindoufeko kanpamenduetan dauden errefuxiatu sahararren alde dirua batzea zuen helburu uholdeek eragindako larrialdiaren aurrean. Ederra izan zen emanaldia eta bigarren atala, gutxienez, harrigarria. *Saturday Night Fever* filma irudikatu zuten. Ez zen detailerik falta izan; disko-teka ere antolatu zuten eta Tony Manero ere han zegoen.

Afariak, bazkariak eta mozorro lehiaketek osatu dituzte Inauteri-egitarauak

Eskoriatzarrek eta arrasatearrek bazkaria egin zuten zapa-tuan eta gatzagarrek, berriz afaria. Giroa, nola ez, ezin hobia eta parte-hartzaile gehienak mozorro-tuta joan ziren gainera. Aramaion, mozorro lehiaketa egin dute aurren ere. Nagusietan saria jaso dute: Indotxina eta Pailazoak taldeek eta txikienetan, San Estebaneko ahizpek eta Aramaioko baserritarrek. Orijinaltasunaren saria eron dute Tintin eta bere lagunek eta Araknidoek.

Aratuste-martitzenean ekitaldi asko egongo dira; baita ume ugari mozorro-tuta ere

Ibarreko ikastetxe gehienak kalera aterako dira mozorro-tuta martitzenean. Horrekin batera, giroa alaitzeko ekitaldi ugari egongo da: Oñatin, Gaztelekuan Mozorro festa egingo dute, 19:00etan; Eskoriatzan, txokolate-jana egongo da, plazan, 17:00etan; Bergaran, Deabru Beltzak taldeak perkusio eta suzko errubera erakustaldia egingo du, 16:45ean eta Aretxabaleta, Euskal disko festa egingo dute, plazan, 18:30ean.

Albiste izango da

ELGETA | MARTXOAREN 5EAN DA IRTEERA

Egokirekin Urbiara eta Aizkorriara joateko izenematea zabalik

Egoki taldeak Aizkorri mendira irteera antolatu du. Martxoaren 5ean izango da, 09:00etan abiatuko dira eta 15:30ean itzuli. Adinaren arabera bi irteera izango dira: txikiendako Arantzazutik abiatu eta Urbiarainokoa eta nagusiendako, Arantzazutik Aizkorriarainokoa. Arantzazurako autobusa antolatu dute (jende gutxi izena emanez gero autoetan joango dira) eta janariari dago-kionez nork berea eraman beharko du.

Izena emateko jo udaletxera martxoaren 2a baino lehen. Prezioa da 5 euro nagusiendako eta 3 ikasleendako.

DEBAGOIENA | 18:00ETAN ARIZMENDI IKASTOLAN

Euskal Curriculumaren gaineko berbaldiak egingo dituzte gaurtik

Gaur hasita hainbat batzar informatibo egingo ditu Arizmendi ikastolak Euskal Curriculumaren gainean. Lau saio egingo dituzte, eta gaur izango da lehenengoa (18:00etan). Hurrengoak martxoaren 13an eta 27an eta apirilaren 10ean izango dira.

Bestalde, eta derrigorrezko eskolaldirako ikasle guztiontzako oinarritzkoa eta komuna irizten den curriculum adosteko asmoz sortu den ekimen horren gainean, Oñatin badaukate eztabaidatzeko hitzordua. Txantxiku ikastolako guraso, laguntzaile eta ikasle ohieki zuzenduta, *Euskal curriculumaren aurkezpena eta azterketatarako proposamena* izeneko berbaldia egingo dute martxoaren 9an (18:30) ikastolako aretoan. Haurtzaindegi zerbitzua egingo da.

ANTZUOLA | ASTEAN ZAZPI EGUNEZ IREKIKO DUTE

Martxoaren 3an, egubakoitza, zabalduko dute berriz gaztetxea

Aurreko asteko batzar orokorrean erabaki zuen Antzuolako Gazte Asanbladak asteen zabaltzea berriz gaztetxea. Dena den, oraingo ez dute ekitaldi berezirik egingo; aurrerago ospatuko dute oraingo irekiera.

Bi gazte koadrila arduratuko dira aurrerantzean gaztetxearen funtzionamenduan, eta guztia gertu izateko Gabonetatik hona hainbat lan egin dituzte: lokala margotu eta txukuntzen jardun dute denbora horretan guztian.

Gazte Asanbladako kideek jakinarazi dutenez, egunero egongo da zabalik gaztetxea. Ordutegia ondokoa izango da: astegun zein asteburuetan arratsaldeko 5etatik aurrera egongo da zabalik Kalebarrengo gaztetxea, plaza ondoan.

ARRASATE | EGUAZTENEAN HITZALDIA EGONGO DA

Asteon hasiko dira Emakumearen Egunaren gaineko ekitaldiak

Emakumearen Nazioarteko Eguna badatorrela eta, emakumeei zuzendutako zein emakumeen gaineko ekitaldiak antolatu ditu Emakume Txokoak. Etzi, eguaztena, hasiko dira ekitaldiak eta martxoaren 29ra arte iraungo dute. Ekitaldiak hitzaldi batekin hasiko dira. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Isabel Otxoak *Zainduak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa* izango du hizpide, 19.00etan, osoko bilkuren aretoan. Gero, domekarako *La Calumnia* antzerkia iragarri dute, Amaia antzokian, 19:30ean. Martxoaren 8rako, berriz, manifestazioa deitu dute.

DEBAGOIENA | OHIKO LEKUETAN BATUKO DUTE

Baserri inguruetan sortutako plastikoa batzeko eguna da bihar

Bihar, martitzena, da baserri inguruetan sortzen den plastikoa batzeko eguna. Batuko duten plastikoa da siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegietako plastiko zuria (plastikozko sokak ez dituzte batuko).

Arratsaldean eta ohiko lekuetan laga behar da. Beste nonbait lagatzeko premia egonez gero, deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira. Hurrengo batze eguna martxoaren 28a izango da (hileko azkeneko martitzena, ohi bezala).

Hitzorduak



BERTSO IKASTAROA EMANGO DUTE ANTZUOLAN ASTE SANTURA ARTE | Etzi, martxoak 1, eguaztena, bukatzen da izena emateko epea

Bertso ikastaroa antolatu du Antzuolako Idolaz euskara elkarteak, eta parte hartu nahi dutenei dei egiten diete lehenbailehen izena emateko; etzi, eguaztena, da eta azkeneko eguna. Horretarako, liburutegira edo Mox tabernara jo behar dute interesatuek.

Ikastaroa Aste Santura arte izango da eta asteen bi orduz emango dute. Enaitz Alustitza bertsolari bergararrak emango ditu eskolak.

Lekua, ordua eta bestelakoak zehazteko, batzarrak egingo dute antolatzaileek izena eman duten guztiekin egunean, martxoak 2.

ARETXABALETA |

- **Kultura trukea egin guran Doneztebeko talde batekin**
Doneztebeko Burrumba taldearekin elkartrukea egin gura du Loramendi elkarteak. Hori antolatzeko batzarra deitu dute martxoaren 2rako, eguna, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Doneztebekoak gurera etorriko dira, eta aretxabaletar talde bat hara joango da.
- **Irudi digitalen gaineko ikastaroaren lehen atala**
Irudi digitalen tratamendua gaineko ikastaroaren lehen zatia emango dute otsailaren 28an eta martxoaren 1ean KZgunean, 09:00-11:00.

ARRASATE |

- **Senideak zaintzen dituzten emakumeen egoera**
Hitzaldi bat izango da etzi, eguaztena, Arrasateko udal-terrean, 19:00etan. *Zainduak izateko eskubidea; emakumeen intsumisioa* izenburupean, Ixabel Otxoa adituak senideak zaintzen dituzten emakumeen baldintzetaz eta eskubideetat hausturatu du.
- **Ingurumen arloko ikastaroak eskatzeko aukera**
Udal Ingurumen Sailak urri-rako ikastaroak antolatzeko aukera du. Horretarako, interesa dutenei dei egiten diete udaletxera jo eta eskaera egin dezaketean.

BERGARA |

- **Erlaxazio masaje eta capoeira ikastaroak daude**
Apiril, maiatz eta ekainerako ikastaroak antolatu ditu Udalak: erlaxazioarena eta capoeira dantzarena. Izenematea zabalik dago kultura etxean martxoaren 25era arte.
- **Posta elektronikoa erabiltzen ikasteko aukera**
Posta elektronikoaren bidez komunikatzen irakatsiko dute gaur, astelehena, KZgunean, 18:00-20:00 ordutegian.
- **36an jaiotako bazkarian parte hartzeko aukera**
36an jaiotakoek batera bazkalduko dute Loiolako Kiruri jatetxean apirilaren 23an, baina izenematea epea etzi, eguaztena, itxiko dute. Autobusa, meza, bazkaria eta dantzaldia izango dira. kontaktuak: Nieves Gallastegi (943 76 21 99) eta Pedro Garitano (943 76 15 96).
- **30osoko bilkura gaur, 19:30ean**
Otsaileko hilabeteari dagokion osoko bilkura egingo du gaur, udalbatzak. Gai zerrendak 14 puntu jasotzen ditu.

DEBAGOIENA |

- **Hizkuntza udalekuetarako begiraleak behar dituzte**
Euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu Ikastolen Elkarteak. Argi-

bide gehiago www.bieikastola.net webgunean duzue.

ESKORIATZA |

- **Luz Ardidenera irteerak antolatu dituzte**
Luz Ardidenera eskiatzera joateko aukera dago martxoaren 4an eta 5ean, eta hilaren 25ean eta 26an. Izenematea zabalik dago Namaste dendan.

LEINTZ GATZAGA |

- **Internetez etxetik erosten ikasteko aukera dago**
Etxetik eros ezazu delako ikastaroa emango dute gaur, astelehena, KZgunean, 18:00-20:00.

OÑATI |

- **Gurasoendako sentimendu tailerra antolatu dute**
Sentimendu tailerra antolatu du Udal Prebentzio Sailak 2-6 urte bitarteko gurasoendako, Jone Beitialarrangoitia psikoterapeutaren eskutik. Ikastaroa doan da eta martxoaren 14an eta 21ean egingo da. Argibide gehiagorako, deitu 943 03 77 00 telefonora (Ainhua).
- **Pilates gimnasia ikastaroan, bigarren talde baten aukera**
Pilates gimnasia ikastaroan, bigarren talde bat osatzen ari dira. Dagoeneko bederatzi lagunek eman dute izena, eta interesa dutenek Gazte Informazio Bulegora jo behar dute. 943 71 82 57 da telefonoa.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Argiketa

Joan zen asteko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn argitaratutako San Viatorreko sutearen erreportajea, Txaro Iraeta San Viatorreko zuzendaria zela esan genizuen. Datua ez zen zuzena: Txaro Iraeta Arizmendi ikastolako zuzendaria da. Izan ere, Arrasateko San Viator gunea ere Arizmendi Kooperatibaren barruan dago, nahiz eta gure erreportajea ez genuen ezer adierazi datu horri buruz. Barkatu eragozpenak.

• Konpondu dute Salvatore kaleko aberia

Elgetako bizilagun batek Elgetako Udalari eskerrak ematen idatzi digu, Salvatore kalean zegoen ur jarioaren arazoa konpondu egin dutela-eta: "Salvatore kalean ur jario etengabea egon da uda aurretik, eta jada asteen konpondu egin du Udalak. Eskerrak eman nahi nizkioke, berandu bada ere, azkenean geratu egin delako ur emaria Salvatore kalean".

• AP-leko asfaltoa hondatuta dago

Gure bailarako errepideek txistu asko sortzen dituzte, eta, horren haritik, bada errepide berri bat behin baino gehiagotan tarte honetan lekua izan duena: AP-1. Oraingoan, gure irakurle batek adierazi digu AP-leko Gallaztegi tuneleko asfaltoa dezente hondatu dela denbora laburrean: "Bergarara zatorzela Gallaztegi tuneleko sarreran bertan autoak jauzi egiten du. Zuloa ez da oso sakona, baina badirudi bidea hondoratu egin dela leku horretan. Tunelean aurrerago joanda askotan nabari da gainazala ez dela batere laua. Errepidea nahiko berria da, eta horregatik adierazi nahi nieke arduradunei autobide berriko asfaltoa gehiago hondatu aurretik konpontzea komeniko litzatekeela".

Sarean harrapatuta

Igarri duzu inguruan pobreziak gora egin duenik?

Milioi bat lagun inguru pobreziaren mugaren azpitik bizi dira Euskal Herrian, Elkartzen plataformaren arabera. Kalkulu hori egiteko, OCDE Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Nazioarteko Erakundearen irizpidea

erabili dute. Haren arabera, herrialde batek sortzen duen aberastasun osoaren erdian dago pobreziaren muga. Hileko 804 eurotan, Euskal Herrian. Ibarrean pobrezia handitu egin denik igarri duzu?

ZORRAK ORDAINTZEKO NAHIKOA LAN DUGU

Ez du ematen daramagun trosta ikusirik: oporrak, eskiatzera, 300.000 euroko etxebizitzak, hipoteka izugarriak... eta denok ez dugu berdin irabazten eta norberak ere lagunak egiten duena nahi dugu egin. Horrela, askok kanpotik oparo ibili arren, etxe-ko egunerokoa benetako zailtasunak izaten ditu. Gure ibarrean lana badago, baina ez dira lan guztiak berdinak eta lan guztietan ez da ikaragarriko soldata irabazten. Baina gauzen prezioak berdinak dira denontzat eta ez da erraza gastu guztiei aurre egitea. Era horretan zorrak ordaintzen nahikoa lan. Lanak behera eginez gero ez dut imajinatu nahi zer gertatuko den gure ibarrean.

lagoba / www.goiena.net

BIZI MAILA ASKO GARESTITU DA

Nik ez dut igarri pobreziak gora egin duenik gure ibarrean. Hala ere, behin eta berriro entzuten ari naiz lana jaitsi egin dela eta gero eta gazte gehiago langabezian dagoela. Nire inguruan ez dut horrelakorik sumatu. Bizi maila, ordea, asko garestitu da eta horrek eragin zuzena izan du guregan.

Miren / www.goiena.net

BATZUK ASKO ETA BESTEEK GUTXI

Egia esanda gure ibarrean ez da asko igartzen... Ikusi egin behar zelako maila dagoen. Baina Iago barekin ados nago. Gastu mordoa egitera ohitu gara eta kredituekin leporaino gabiltza halako bizi-mailari eusteko.

Bestela, ez nuke esango hemen, gure ibarrean, pobreziak gora egin duenik. Hala ere, beste leku batzuetan ezingo dute berdina esan. Badakizue, batzuk zenbat eta gehiago eduki, beste

batzuk orduan eta gutxiago izango dute.

Jasone / www.goiena.net

URTE BATZUK BARRU LARRIAGO IBILIKO GARA

Nik ez nuke esango gure inguruan gora egin duenik pobreziak. Betiko moduan ikusten dut nik. Baina pentsatzen dut laster ikusiko dugula jendea nahiko larri, orain baino askoz larriago. Izan ere, orain 80 kiloko etxebizitzetan sartu da jende asko eta ikusi beharko da hemendik urte batzuetara zer pasatzen den jende horrekin, banketxeari ezin diotenean ordaindu. Nik ezagutzen ditut batzuk hori gertatu zaiena eta etxebizitzak hartzen duten salneurriekin, laster denok zubi azpian!

Karlos / www.goiena.net


DEBAGOIENEAN ERE BADAGO LANGABEZIA

Nik asko igarri dut Debagoiengan lan falta. Orain lan gabe nago eta ez lanik egin nahi ez dudalako. Ez dakit pobrezia edo zer den baina nik behintzat nire poltsikoan asko igarri dut. Eta gero esaten dute Debagoiengan ez dagoela langabeziarik! Gezurra da hori guztia. Gertatzen dena da batzuk gehiegi dutela eta beste batzuk irauin egin behar.

Langabetua / www.goiena.net

www.goiena.net

Igarri duzu zure inguruan pobreziak gora egin duenik?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Gehienezko alkohol neurria edo abiadura gaintzea delitutzat jo nahi ditu Trafikok. Egokia da



JON ALTUNA |
HIRU SINDIKATUA

Zigorra eraginkorra izan dadin jokabide okerrak zuzentzeko balio behar du, eta kartzelak ez du balio. Beraz, zuhur jokatu behar da eta neurri egokia bilatu, teknologia erabiltzen ez den bitartean abiadurari mugak (topea) jartzeko eta gehiegi edan duenak ezin dezan autoa martxan jarri.



JOKIN ITURRIOTZ |
LENIZ AUTOESKOLA

Abusuak gaizki iruditzen zaizkit. Batzuen abiadura gehiegizkoa da, baina ez da berdina 120 km/h-ko A-8an edo Iruñea-Zaragoza autobidean. Alkoholari buruz, pertsona guztiek ez dute berdin erantzuten. Muga zehaztea zaila da, baina kartzela ere gehiegizko da; heziketa behar dugu.



AITOR ZABALETA |
AUTO GIDARIA

Nire ustez, gauzak puztu egiten dira; egia da ditugun errepideak ez datozela bat egiten diren autoekin, baina gaur egungo autoak ere ez dira lehengo modukoak. Muga gehiegi jartzen dira-eta. Martxa honetan, gidariek zer egin dezaketzen galdetzen aritu beharko dute, horrenbeste mugarekin...



MAIDER MORRAS |
ABOKATUA

Gaur egun, zigorrek multa ekonomikoak eta gidabaimenaren gabetzea dakartzate, eta, egia esan, kasu askotan zigorra nahiko zorrotza izaten da.


Neurri berriari dagakionez, ikusi beharko da zein kasu zehaztuetan aurreikusten duten askatasun gabetzearen aplikazioa.

Egunkarietako harribitxiak

'PARADISUKO NIRE ABENTURAK'

Izenburu horrekin erakutsi du Bruce Beehler bidaiariak Ginea Berriko mendietan zientifikoen artean iraultza sortu duen altxorra. 30 espezie berri aurkitu ditu eta domekako gehigarriak haren egunerokoan jasotakoak erakutsi zituen atzo: "Ez nekien 18 urte pasako zirenik hara heldu arte".

'XL Semanal'
2006-02-26



Zorroztailea

Edozer ikusten ei dute



Nerabeen %30ari "asko" gustatzen zaio telebista eta "edozer" ikusten duela dio, aukeraketarako inolako irizpide barik. Astean gutxi gorabehera 21 ordu ematen dute telebista aurrean eta %85ak dio zapping egiten duela ez zaiolako iragarkiak irenstea gustatzen (%51) edota beste kateetan zer ematen duten ikusteko (%34).

'Noticias de Gipuzkoa' |
2006-02-25

du, baina onartu beharko didazue kendutako eta jarritako saioren artean ez dela egoten alde handirik.

Horren ondorioz, gure nerabe argiek egiten duten moduan, edozer ikusten dugu, aldaera bakarra aurkezleren bat, inolako arrazoi garbi barik, ez dela gure gustuko eta hori ez dugu ikusiko, baina ez dago beste irizpiderik.

Beraz, inon esango ez duten ondorio bat garbi utzi du inkesta honek: gure gazteen hirutik baten zatit telebista kate guztiak gauza bera dira. Telebistako programatzaileen batek ondorio hau aterako balu aurki zerbait ezberdina egiten hasiko litzateke etorkizuna hortik etor daitekeelakoa, baina horretarako borondate gutxi ikusten dut gaur egungo telebista kateen artean, agian tokiko telebistek indar apur bat hartzen dutenean...

BORROKA-GUNEA BAKEAN

Long Kesheko kartzela irlandarren eta britainiarren arteko borrokaren ikur herdoildua da gaur egun. Eguaztenean beteko dira 25 urte Bobby Sands presoak heriotzarainoko gose greba hasi zuela hantxe. Hura izan zen lehenengoa, baina Francis Hughes, Patsy O'Hara, Raymond McCreesh, Joe McDonnell, Martin Hurson, Kevin Lynch, Kieran Doherty, Tom McElwee eta

Michael Devinek ere jarraitu zioten. Irlandar preso politikoak ziren guztiak eta Erresuma Batuko Gobernuak estatus politikoa onar ziezaien ekin zioten gose grebari, eta horren ondorioz guztiak hil ziren. Eguaztenean, urtemugarekin bat eginez zortzi hilabetez iraungo duen egitaraua abiaraziko dute Irlandan, gertakari haiek gogoratzeko.

'Berria'
2006-02-26



Jabier Arantzeta

Askotxo ote diren beste inolako zereginik barik telebista aurrean jarri eta, beste barik, dagoena ikustera jartzen direnak. Bestalde, arrazoi apur bat ere badaukate; izan ere, bata jarri, edo bestea jarri, aukera handirik ere ez dago. Baina has gaitzen ordena apur batekin.

Telebista pribatuak martxan jarri zirenean bazirudien aukera handiagoa izango genuela, hori zen behintzat saltzen zigutena, norberak nahi zuena ikusi ahal izango zuen. Baina ez zuen asko iraun ilusio hark, laster konturatu ginen, ikusi, benetan ikusiko genuena iragarkiak izango zirela eta horien artean sartzen zituuztenak denak ere oso antzerakoak.

Bai, esango didazue ikusle kopurua beti neurtzen dela eta horren arabera erabakitzen dela zein programa jarri eta zein ken-

"Telebista pribatuak martxan jarri zirenean bazirudien aukera handiagoa izango genuela. Ez zuen asko iraun ilusio hark"

"Borondate gutxi ikusten dut gaur egungo telebista kateen artean. Agian tokiko telebistek indar apur bat hartzen dutenean..."

Tira, tira...



Uxaldia Donostian.
-"Kamuflejari onena".

Argote 'Noticias de Gipuzkoa' | 2006-11-26

Egunkarietan irakurri dugu

'Noticias de Gipuzkoa'

ALDERDIEN MAHAIA

"EAJk argi du euskal gizartearen erabakia errespetatu behar dela, eta hori printzipio demokratikoa dela, baina ETArekin ezin da inolako gai politikorik negoziatu. Edozein bake prozesuri ekin baino lehen, beharrezkoa da ETArek erabaki irmo eta argia, indarkeriazko edozein ekintza mota, mehatxu edo estortsio bertan behera lagatzeko".

Josu Jon Imaz
2006-02-26

'Deia'

FERNANDO BUESAREN ALARGUNA

"Etsenplua eman behar dugu eta gure sendikoen oroitzapena eta duintasuna errespetatu egingo direla ziurtatu; baita justizia egongo dela eta Zuzenbideko Estatua errespetatu egingo dela ere. Amorruta logikoa da, baina nahiko nieke biktimei esan ez eurak ez beste inork ezin diola bidea libre laga amorruari, arrazoi legitimo guztia duten arren".

Natividad Rodriguez
2006-02-26

'El Mundo'

PROTESTA JUSTUA

Zapaterok sentsibilitate oso txikia erakutsi du biktimenganako. Erratu egin zen Gregorio Peces-Barba izendatu zuenean, Valentziako kongresura ez joaten eta parekatu zituenean Espainiako gerran fusilatuta zioten aitona Irene Villak jasandako atentatuarekin, erradikalekin izandako kontaktuak... Horiek guztiek eragin zuten manifestazioa.

Editoriala
2006-02-26

'Berria'

EUSKAL DISKOETXEAK

"Lan artistiko bati balioa jartzeko orduan artistaren eta ekoizlearen irizpideak kontrajarriak baitira askotan. Zenbat balio du abesti batek? Are, preziorik jar dakiok? Erantzuna bai eta ez da. Ez, kreaizko baten balioa ezin daitekeelako neurtu. Eta bai, kreaizko hori erosiko duena prezio bat ordaintzeko prest dagoelako baina ez gehiago".

Anjel Valdes
2006-02-26

KIROLA

- Saskibaloian 91-80 irabazi dio Mugarri Alkesak UPV Alava taldeari | 19
- Bergarak merezitako garaipena lortu du Oñatiren aurkako eskubaloï derbian | 18



Agustin Aranburu errugbi jokalaria beteranoa da eta kirol honetaz jardun du gu berarekin | 21

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

MONDRA

0-1

ALOÑA MENDI

Mondra | Ander, Mucador, Illart (Muxi, 70. min.), Markel (Losada, 58. min.), Lazpiur, Ruben, Loiti (Keixi, 46. min.), Gotzon (Alzola, 46. min.), Murua, Zubikarai eta Ekain.

Aloña Mendi | Elgarresta, Elgarresta (Losada, 85. min.), Idigoras (Maiztegi, 89. min.), Garai, Arregi (Henry, 76. min.), Astola, Sanchez, Astigarraga (Arregi II, 78. min.), Zubia, Olalde eta Lopez

Golak: | 1-0 Jon Astigarraga (25. min.).

Epailera | Ayesa jauna. Ez zuen lan handirik izan, eta hartutako erabakiak zuzenak izan ziren.

Bestelakoak | Jende asko hurbildu zen Atxabalpe futbol zelaira ibarreko derbia ikustera.

Bikain

Intentsitatea

Bi taldeak gogotsu atera ziren zelaira. Aloñak lana hobeto egin zuen eta ordainetan gola izan zuen alde. Hala ere, Mondrak bukaera arte borrokatu zuen.

Kaskar

Mondrako defentsa

Igor Gordobilen mutilik atzealdean galduta ibili ziren, batez ere lehen zatian. Huts asko egin zituzten eta ez ziren Aloñako jokalariei aurre hartzeko gauza izan. Atzealdea hobetu beharra dute.

Esandakoak

“Zelaira intentsitate handiarekin atera gara Aloñako jokalariek, eta nik uste dut hor egon dela gakoa”.

IKER OLALDE | ALOÑAKO JOKALARIA

“Partidua galtzeak min eman digun arren, aurrera egin behar dugu, orain dauzkagun partidua gogorak izango dira-eta”.

MUXI | MONDRAKO JOKALARIA



Jon Astigarraga eta Unai Arregi Mondrari egindako gola ospatzen.

FUTBOLA | GOGOTSUA IZAN ZEN ATXABALPEKO DERBIA

Aloña Mendik egin zuen derbiko gol bakarra

Ikusminak piztuta zale asko hurbildu ziren zapatuan Atxabalpera Mondraren eta Aloñaren arteko ibarreko derbia ikustera

Arantzazu Ezkibel

Oñatierrek eraman zituzten hiru puntuak zapatuan Atxabalpetik, Mondrari 0-1 irabazita. Aloñak, beraz, lehenengo postuan jarraitzen du beste aste batez.

Zapatukoa partidu lehiatsua izan zen. Lehen zatian Aloña nagusi izan zen, zelaian ondo kokatuta egon ziren; aipatzekoa da oñatierren talde lana. Baloï guztiak borrokatu zituzten Aitor Oruetaren mutilek; presio handia egin zuten Mondrako defen-

tsan, eta, horren ondorioz, aukera politak izan zituzten baloia sare barrura sartzeko: 10. minutuan Astolak eskumako hegaletik baloia sakon Idigorasi pasa eta haren erdiraketa Arregi I.ak kanpora jaurti zuen.

OÑATIARREN PRESIOA

Etxeko taldeak gol aukera paregabea izan zuen 20. minutuan kornen baten bidez. Gotzonek aterako kornerra Arregi I.ak urrundu zuen. Aloñaren defentsa ateratzen ari zela, Mondrako

aurrelariari iritsi zitzaion baloia. Hura atezainaren aurrean bakarrik geratu zen, baina jaurtiketa kanpora joan zen gutxigatik. Etxekoen ahalegina ezerezean geratu zen, horrenbestez.

Mondraren defentsak, Aloñakoen presioaren ondorioz, baloï ugari galdu zituen. Hala, horrelako jokaldi batean, Jon Astigarragak Mondraren atea zulatzea lortu zuen.

2. ZATIA ETXekoENA

Atsedendialdiaren ostean Mondrak aurrera egin eta jokoaren kontrola hartu zuen.

10. minutuan Zubikarai oñatierren defentsari bizkarra hartu, eta baloia atera jaurti zuen. Elgarresta ondo ibili zen eta jaurtiketa geratzea lortu zuen. Eta norgehiagokaren azken minutuetan etxeko taldeak partidua berdintzeko aukera izan zuen: Muruak atea hutsik zuela errematatu egin zuen, baina Astola argi ibili zen eta baloia kanpora bota zuen.

Gol bakarra Jon Astigarragak egin zuen, lehen zatian, 25. minutuan

Mondra 2. zatian buru-belarri atera zen berdinketaren bila; amaiera arte ez zuten etsi

Preferente maila



JOSETXO ARANTZABAL

Aretxabaletako taldeak partidu ona egin zuen eta baloiaren jabe izan zen ia partidu osoan.

Errenteriako taldea ez zen aurkari izan Aretxabaletan

UDA
1-0
TOURING

UDA | Eriz, Sanchez, Erostarbe, Iturbe, Unamuno, Arrieta, Cocho (Igartua, 83. min.), Garcia, Azkue (Nuñez, 80. min.), Orueta eta Espinosa (Joseba, 85. min.).

Orioko | Urrutia, Martinez, Crespo, Sanchez, Olaizola, Beloki, Franco, Ferrero (Nieves, 54. min.), Auzmendi (Garmendia, 81. min.), Iriarte eta Carrillo (Maritxalar, 54. min.).

Golak: 1-0, Kepa Azkuek (40. min.).

Epailea: Iñaki Benavente.

A.G.

Arazo gutxi izan zituen zapatuan Aretxabaletako taldeak Errenteriakoak mendean hartzeko. Touringek emaitza onak lortu ditu aurtengo denboraldian, baina ezer gutxi egiteko gauza izan zen Ibarrran.

Norgehiagokaren lehen minututik Felix Reciorenak izan ziren baloiaren jabe. Gol bakarra egin zuten azkenean, baina aukera bat baino gehiago sortu ondoren iritsi zen.

Kepa Azkuek egin zuen Aretxabaletaren tantoa, 40. minutuan. Atsedenaldirako, beraz, aurretik zen etxeko taldea.

UDAK gol gehiago merezi izan zituen, baina ez zuen jaurtiketetan asmatu. Touring presio egitera irten zen bigarren zatian; hala ere, nekez lortu zuen etxeko taldearen areara hurbiltzea. Neurketaren azken bost minutuetan izan ezik, ez ziren baloia kontrolatzeko gauza izan.

JON IREGI, LUZERAKO LESIONATUTA

Bestalde, joan zen asteburuko Pasaiaren aurkako neurketan min hartu zuen Jon Iregi atzeariak: lotailu eta perone haustura egin zituen. "Gure ustez lau bat hilabete beharko ditu Jonek ondo osatzeko", esan digute Ibarrran.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

UDA-Touring	1-0
Zestoa-Pasaia	1-1
Allerru-Orioko	1-5
Mondra-Aloña Mendi	0-1
Berio-Idiazabal	2-1
Irun 1902-Beti Gazte	3-2
Anaitasuna-Mutriku	0-1
Hondarribia-Ordizia	2-0
Trintxerpe-Zarautz	0-1
Hernani-Real Union	1-3

HURRENGOAK

Real Union-UDA
Touring-Zestoa
Pasaia-Allerru
Orioko-Mondra
Aloña Mendi-Berio
Idiazabal-Irun 1902
Beti Gazte-Anaitasuna
Mutriku-Hondarribia
Ordizia-Trintxerpe
Zarautz-Hernani

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Aloña Mendi	55	26	17	5	4	54	30
2. Real Union	51	26	16	7	3	53	30
3. Ordizia	50	25	16	7	2	46	26
4. Zarautz	48	26	14	6	6	52	28
5. UDA	48	26	14	6	6	47	24
6. Pasaia	44	26	11	4	11	54	37
7. Trintxerpe	43	25	13	8	4	43	33
8. Mutriku	40	26	12	10	4	35	36
9. Touring	38	26	11	10	5	36	34
10. Mondra	37	25	11	10	4	38	28
11. Hondarribia	35	26	10	11	5	32	43
12. Berio	34	26	9	10	7	37	38
13. Hernani	33	26	9	11	6	36	40
14. Zestoa	30	26	7	10	9	30	36
15. Anaitasuna	28	25	8	13	4	28	37
16. Idiazabal	27	26	6	11	9	27	42
17. Irun 1902	24	26	6	14	6	35	53
18. Orioko	20	26	4	15	8	33	62
19. Beti Gazte	17	26	3	15	8	26	46
20. Allerru	14	26	3	18	5	21	60

Bigarren erregionala

Antzuolak berdinketa besterik ez zuen lortu

SORALUZE

2-2

ANTZUOLA

Asteleheneko Goienkaria

0-2 irabazten joan eta gero, Antzuolak berdinketarekin konformatu behar izan zuen zapatuan Soraluzen.

Partidua nahiko berdindua izan zen; lehen zatia etxeko-

tzat izan zen eta bigarrena Antzuolarentzat.

PENALTIA ALDE

Jose Angel Antzuolako presidentek esan digunez, hasi eta 15. segunduan epaileak penaltia adierazi zuen Antzuolaren alde. Mendizabalek hartu zuen baloia jaurtitzeko ardura eta ez zuen hutsik egin. Minutu gutxira Godoik bigarrena egin zuen.

Atsedenera iritsi baino lehen, Soraluzek aldea murriztea lortu zuen. 2. zatian etxekoak gehiago izan ziren eta berdinketaren gola egin zuten.



ARTXIBOA

Antzuolak kontraerasoan sortu zituen aukera onenak.

Emakumezkoen igoera fasea

Jokalari lesionatu gehiegi gauza onerako

BERGARA

1-9

INTXAURDI

taldeko neskekin osatu behar izaten du hamaikakoa.

Zapatuan Donostiako Intxaurdi taldearen aurka 1-9 galdu zuen Bergarak. Donostiarren jokoa ez zen ona izan. Kontua da etxeko taldeak gazte mailako zazpi jokalarirekin jokatu behar izan zuela norgehiagoka.

Bergarak atezainik gabe jokatu zuen. Lehen zatian sei gol egin zituzten donostiarrek. Atsedeneren ostean etorri zen Bergararen gol bakarra, Izaro Larrañagak egindakoa.

Lesionatutakoak osatu ezean taldeak etorkizun eskasa du.



JOSETXO ARANTZABAL

Hamabi jokalaritu lesionatuta Bergarako taldeak.

Eskola kirola

LEINTZ BAILARA

"Garrantzitsua da taldekideak animatzea joko zelaian daudenean"

Zapatu goizean Almenera hurreratu ginen, Leintz ibarreko gaztetxoengana

Futbol zelaian mutikoak eta kiroldegian neskak aurkitu genituen

Aratusteak izan arren, Almenen ez zegoen horren testigantzarik

Geaxi Ezpeleta

Almeneko kiroldegiko atea zeharkatzearekin bat ikusi genituen Gazteluondo 6 eta San Viator 5 taldeetako neskak. Batzuk joko zelaian baloiaren atzetik zebiltzan bitartean, besteak haiek animatze lanetan.

Taldekideak joko zelaian eta eurak aulkian dauden bitartean ea lagunak animatzen dituzten galdetu genien neskei. Entrenatzailearen ondoan jarri eta partiduari adi-adi zeudela eman ziguten baiezko erantzuna: "Animu hitzak taldearen edo taldekideen izenekin lagunduta erabiltzen ditugu". Gainera, animatuak izatea gogoko duten neurri berean besteak ere animatu egin behar direla esan ziguten: "Ondo egingakoa txalotu egiten dugu eta zerbait gaizki egiten denean ez gara haserretzen".

Aulkian zeuden jokalarien ahotsez gain entrenatzaileenak ere ozen entzuten zirela esan behar dugu; euren taldeak animatu eta, batez ere, jokoan gidatuz, nahiz eta askotan neskek ezer entzuten ez zutelarik ziren.

MOZORRORIK EZ ALMENEN

Bestalde, Aratusteak izan arren ez genuen Almenen mozorrotutako gaztetxorik aurkitu. Antza, beste egun edo gune batzuetarako zituzten gordeta jantziak neska-mutikoek.



GEAXI EZPELETA

Gazteluondo 6. Elena, Miren, Ainhua, Eider, Arrate, Irene, Garazi, Alaitz, Itziar, Nahia, Haizea eta Ilargi.



GEAXI EZPELETA

San Viator 5. Malen, Kimey, Leire, Irati, Jone, Eider, Izaskun, Maider eta Ainhoak osatutako taldea.



GEAXI EZPELETA

San Viator 6. Marta, Andrea, Irati, Ainhua, Ane, Lidia, Irantzu, Maialen, Aitziber, Lierni, Olatz, Garazi eta Nahikari.



GEAXI EZPELETA

Kurtzeberri. Janire, Maialen, Maddi, Jone, Uxue eta Nereak jokatu zuten zapatuko partidua.

• ANIMATZEA ETA ANIMATUAK IZATEA GOGOKO DUTE LEINTZ BAILARAKO NESKATILEK



EIDER, ARRATE ETA MIREN |
GAZTELUONDO 6

"Jokatzen ez dugunean taldekideak animatzen ditugu. Txalo egiten dugu, taldearen izena oihukatu, edo taldekideen izenak esanez animatzen ditugu".



IZASKUN, IRATI ETA AINHOA |
SAN VIATOR 5

"Ondo dabilzala eta horrela jarraitzeko esanez animatzen ditugu jokatzeko ari diren taldekideak. Denok animatzen dugu joko zelatik kanpo gaudenean".



NAHIA ETA GARAZI |
GAZTELUONDO 6

"Baloia duena animatzen dugu batez ere; zer egin eta nola jokatu esaten diogu. Animu hitzak ere esaten dizkiegu".



ANE, GARAZI ETA IRANTZU |
SAN VIATOR 6

"Garrantzitsua da taldekideak animatzea joko zelaian daudenean. Guk ere atsegin dugu jokoan gabiltzanean besteak gu animatzea".

Iruditlan



JOSETXO ARANTZABAL

Senior maila. Erraz irabazi zuten zapatuan Arrasateko mutilek Garagartzan jokaturako norgehiagoka. Plentziako Kakarraldoak taldearen bisita jaso zuten eta hasieratik jarri zen aurretik etxeoak. Garagartza, betiko moduan, lokaztuta zegoen baina puntuak egitea lortu zuten eta Arrasatekoek 17-7 hartu zituzten mendean bizkaitarrak.



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasaten. Udalak antolatuta pilota jaialdia egin zuten barikuan Uarkapen. Leiza-Rai bikoteak 17-22 hartu zuen mendean Unanue-Errasti. Gero, Esainek 22-2 irabazi zion Agirrerri.



LARRAITZ ZEBERIO

Akordiorik eza. Ez da giro azkenaldian Euskal Mendizale Federazioaren batzarretan. Diru banaketa kontuak dira tarteko. Zapatuan gipuzkoarrek batzarretik alde egin zuten.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Arizmendi Dragons. ACDk antolatutako eskolarteko txapelketan dihardu Debagoieneko taldeak. Barikuan 2. partida jokatu zuten. 47-55 galdu zuten Corazonistas taldean aurka.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Bergarari atezainaren lanak eman zion garaipena

Egubakoitzean Zubikoan derbi bizia jokatu zuten Bergarako eta Arrikruzeko mutilek



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarak murriztu egin du sailkapenean Aloñarekiko zuen aldea.

ARRIKRUTZ ALOÑA
22-29
BERGARA

Arrikruz Aloña | Zurutuza, Galarza, Arregi, Garcia (1), Pata, Bernal (5), Zulueta (4), Garcia (7), Berrocal (4), Lizarralde, Ugarte, Agiriano eta Garcia (1).

Bergara | Kapelastegi, Uribe (2), Larrañaga (6), Agirre (2), Sanchez (4), Otxoa, Pozo (2), Najera (1), Najera (2), Zabaleta, Lenisoro (4), Ugarte (4), Zangitu eta Plazaola (2).

Golak: 1-2, 2-3, 2-5, 4-8, 7-11, 8-12, 11-15, 15-19, 18-20, 19-21, 20-25, 22-29.

Arantzazu Ezkibel

Egubakoitz arratsaldean Bergarak merezimendu osoz irabazi zion Aloñari Zubikoa kiroldegian. Derbi bizia izan zen.

Bergara lehenengo zatian ondo ibili zen; etxekoek baino joko hobea egin zuten mahoneroek. Aipatzekoa da Kapelastegi atezainak egindako lana; izan

ere, bergararra bikain ibili zen. Haren geldiketek kontraeraso asko bideratu zituzten.

DEFENTSAN ZULO ASKO

Etxeko taldea gaizki ibili zen defentsan. Zulo asko utzi zituzten eta bergarrek ez zuten arazorik izan behin eta berriz atea zultzeko. Erasoan, berriz, oñatiarrek atezainarekin egin zuten

topo. Neurri handi batean, atezainaren lana dela-eta iritsi ziren bergararrak atsedenaldira lau goleko aldearekin.

Bigarren zatian, berriz, poliki-poliki aldea murrizten hasi ziren etxekoak: 20. minutuan 19-21 ziren atzetik oñatiarrak. Hala ere, Aloñako mutilek malezia txikia erakutsi zuten eta pase samurretan huts egin zuten.

Azken minutuetan, Bergarak, aldeari eutsi nahian, berriro ere Kapelastegi atera zuen atepara.

Hala, azken minutuak Bergararenak izan ziren. Etxekoak ezer gutxi egiteko gauza izan ziren; partidua galdutzat jo zuten Iñigo Aranbururen mutilek. Azkenean, mahoneroak 22-29 nagusitu ziren Zubikoan.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Arrasatekoak gorantz begira

FORD MUGARRI
31-22
LEIZARAN

Ford Mugarri | Egaña, Valle, Ezkibel, Gaia, Olaberria, Urrutia, Masip, Ortiz de Muruamendiaraz, Murillo, Lonbide, Calleja, Altzelai, Isasmendi eta Oregi.

Leizaran | A. Aizpurua, I. Alaña, I. Sarasola, R. Lasioz, I. Amenabar eta R. Nogales.

Markagailua atsedenean: 15-12.

Larraitz Zeberio

Sailkapeneko bigarren postuan jarraitzen du Ford Mugarrik, asteburuan Leizarani 31-22 irabazi ondoren.

Azken postuan dagoen Leizaran ez zen kontrario izan Musakolan, nahiz eta lehenengo zatian etxeko taldearen erritmoari nahiko ondo eutsi.

Motel hasi zuen neurketa Andoni Arandoren taldeak. Tentsio puntu hori falta izan zitzairen hasieran, baina ez zuten beharrezkoa izan aurkariari markagailuan aurre hartzeko. Leizaran taldea, gainera, jokalaria



JOSETXO ARANTZABAL

Nestor Callejak ez zuen barkatu ate aurreko jaurtiketetan.

gutxiarekin etorri zen Arrasatera. Sei besterik ez ziren, eta lehenengo zatia amaitu aurretik jokalaria batek min hartu zuenez

bat gutxiagorekin jarraitu behar izan zuten. Arrasatearrek lan txikia izan zuten Leizarangoak mendean hartzen.

• GAZTE MUTILAK

Gol bakarreko aldea atera zion Gatz Museoak Bergarari

GATZ MUSEOA
29-28
BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Alde txikiagatik izan arren, Gatz Museoak irabazi egin zuen zapatuan jokaturako partidua. Etxekoek partidua ondo egin zuten, defentsan seriotasunez jokaturatuta. Hala, atsedenaldira 15-13 aurretik iritsi ziren. Bergararrak saiatu egin ziren bigarren zatian aldea murrizten, eta lan txukuna egin arren, azkenean galdu egin zuten.

• KADETE MUTILAK

Aloña Mendik liderraren aurka partidua ondo jokatu zuten

ALOÑA MENDI
26-26
URNOBITZA ELGOIBAR

Arantzazu Ezkibel

Oñatiarrak beldur barik atera ziren zapatuan liderraren aurka. Etxeko taldea, sailkapenean azkena izan arren, oso ondo aritu zen; batez ere erasoan. Defentsan zailtasun handiagoak izan zituzten oñatiarrek. Bigarren zatian Aloñako jokalariek defentsa sendotu zuten. Baloia asko lapurtu zituzten eta horrek kontraerasoan ateratzeko aukera ugari eman zien.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO TERRITORIALA

Arrikruz-Bergara	22-29
Ford Mugarri-Leizaran	31-22

GAZTE MUTILAK

Gatz Musoa Jakion-Bergara	29-28
Aloña Mendi	atsedena

GAZTE NESKAK

Ereintza Aguaplast-Bergara	3-0
----------------------------	-----

KADETE MUTILAK

Aloña Mendi-Elgoibar	26-26
----------------------	-------

• LEHENENGO MAILA, IGOERA TXAPELKETA

Berriro ere garaipena Iturripen

Partidu gogorra izan zen, baina aurrera atera zuten beste behin Mugarri Alkesakoek. Bost jokalarik jokatu zuten partidu ia osoa

MUGARRI ALKESA

91-80

UPV ALAVA

Mugarri Alkesa | Gamarra (20), Domingo, Mallabiabarrena (11), M. Biain (2), Barberena, Herzog, Kintana (15), Hernandez, Alartzia (20), Aranburu, I. Biain (21) eta Isasa (2).

UPV Alava | Vitoria (20), Garaialde (4), Perez (18), Miranda, Domaica, Ortiz (15), Sanchez, Fernandez (7), Santamaria (4), Ruiz (5) eta Orokieta (7).

Markagailua: Lehenengo laurdena 28-19, Bigarren laurdena 41-36, Hirugarren laurdena 68-55, Laugarren laurdena 91-80.

Larraitz Zeberio

Iturripen gero eta jarraitzaile gehiago batzen da harmailetatik Mugarri Alkesako mutilei animuak emateko. Esker onekoak dira, gainera, Zurututzaren jokalariek, azkenaldian beti hartzen dituzte eta mendean Arrasatera etortzen diren aurkariak. Zapatuan UPV Alava taldea izan zen.

GORKA ZURUTUTZA | MUGARRI ALKESA TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Jokalariek topera daude fisikoki eta mentalki; ea noraino iristen garen!"

Larraitz Zeberio

Ez du kezarik. Taldean giro bikaina ikusten du eta orain arte, behintzat, emaitzak alde izan dituzte. Denboraldiko azken txanpari buruz galdetu diegu.

Zuen esku dago igoera fase honi etekina ateratzea?

Auskalo. Partidu asko irabazi ditugu, baina gu asterik aste goaz; ea zer gertatzen den. Ahal dugun guztia egiten dugu gauzak ondo ateratzeko. Dena ematen dugu, eta oraingoz ondo doakigu.

Denboraldi hasieran, entrenatzaile moduan, espero zenuen taldea egoera honetan egongo zenik?

Beti daukazu ilusio hori hasieran, baina horren ondo

PARTIDU LEHIATSUA

Igoera txapelketan ez dago txanxarrik, eta dena ematera ateratzen dira kantzara talde guztiak.

Arrasateko taldearen entrenatzaileak ez zuten arriskurik hartu eta azkenaldian osatzen duen hasierako boskotea atera zuten kantzara: Gamarra, Iñigo Biain, Mallabiabarrena, Kintana eta Alartzia.

Neurketak ez zuten nolanhiko hasiera izan: arabarrek gogor ekin zioten jokoari eta hasierako minutuetan bost punturen alde hartu zuten markagailuan.

Etxeko taldea kantzax kokatu ezinik ibili zen, baina laster erreakzionatu zuen. 12-12 berdindu eta buelta eman zioten markagailuari. Lehenengo laurdenaren amaieran bederatzita puntugatik ziren aurretik.

Bigarren laurdenean arabarrek partzial hobe egin zuten (13-17). Larri ikusi genituen Arrasatekoak. Zorionez, baina, markagailuari eustea lortu zuten eta Zurututzak Mikel Biain eta Domingo atera zituen kantzara, Kintanari eta Alartziari atsedena emateko.

egotea, egia esanda, sorpresa txiki bat izan da. Banekien ondo ibiliko ginela, baina... hain ondo! Zein da zuen sekretua?

Ez dakit zer esan. Asteko lana ona izaten da eta entrenamenduak onak direnean partiduak ere onak izaten dira, normalean. Jokalariek gogoz etortzen dira eta denak emanda entrenatzen dira, astean hiru aldiz. Gero, emaitzak onak izaten dira. Ez dago sekreturik. Lana da sekretu bakarra.

"Ez dago inongo sekreturik. Gogor entrenatzen dugu astean hirutan"



JOSETXO ARANTZABAL

Saskiaren azpian lan handia egin zuen Ander Mallabiabarrenak.

Hirugarren laurdenean Mallabiabarrena eta Iñigo Biain bereziki ondo ibili ziren eta etxeko taldeak 12 puntuko alde hartu zuen. Eta azken segundotuan Isasak Alartziaren ordez jokatze aukera izan zuen, baita saskiratzea egin ere.

Azken laurdenean arabarrek partzial hobe egin zuten, baina ez zen nahikoa izan markagailuan aurre hartzeko.

DATORREN ASTEBURUAN BI PARTIDU

Hala, etxean jokatuko ditu Mugarri Alkesak hurrengo hiru partiduak. Datorren asteburuan bi jokatuko dituzte: Zornotza hartuko dute zapatuan eta Urdaneta, berriz, domekan. "Asteburu garrantzitsua izango da", adierazi digu Gorka Zurututzak. "Zapatuko partiduak gogorra izango da, baina domekakoa zailagoa".



Gorka Zurututza entrenatzailea.

koa. Faltak daude, jokoa sarritan gelditzen da... Partiduak gogorrrak dira eta igoera txapelketa honetan gehiago, baina aurrera ateratzeko modukoak.

Nola ikusten duzu taldea azken txanpa honetarako?

Topera daude, fisikoki eta mentalki. Maila emango dutela argi eta garbi daukat. Baina partidutik partidura ikusiko dugu gauzak nola planteatzen diren. Ea noraino iristen garen!

• 2. TERRITORIALA

Eskoriatzarrak esku-hutsik etorri ziren Barakaldotik

BARAKALDO

53-33

ESKORIATZA

Asteleheneko Goienkaria

Eskoriatzako neskek beste behin esku-hutsik etorri behar izan zuten, Barakaldon 53-33 galduta. Javi Corbalen neskak ahalegin egin ziren partidua aurrera ateratzen; amaiera arte borrokatu zuten, baina ahalegina ezezean geratu zen.

Hasieran 8-0eko partziala jaso zuten kontra eskoriatzarrek. Bigarren laurdenean partidua 14-14 berdintzea lortu zuten, baina epailaren erabakiek eskoriatzako taldea kaltetu zuten.

Laurdenetako emaitzak hauek izan ziren: 10-6, 14-9, 12-0 eta 17-18. Javik esan digunez, jokalariek partidu amaierara fisikoki ondo iritsi ziren arren, kontra jasan zituzten falta teknikoek taldea lur jota utzi zuten.

Bizkaitarrek defentsa gogorra egin zuten, eskoriatzakoei jaurtiketak egiteko zailtasunak jarri. Maite Laborda eta Yaiza izan ziren saskiratzaile nagusiak.



Labordak lan txukuna egin zuen.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Mugarri Alkesa-UPV Alava 91-80

NESKEN BIGARRIN MAILA

Barakaldo-Eskoriatza 53-33

INAUTERIETAN ATSEDENA

Asteburu honetan bi emaitza jaso ditugu asteroko gure taulan. Asteburu berezia izan da honakoa eta Debagoieneko gainerako saskibaloitalde guztiak atsedena hartu dute Inauteriak direla eta.

JAVIER LAZKANO | BERGARARRA, BARTZELONAKO ZALEA

"Normala da berotzea, baina Eto'o profesionala da"

Xabier Urtzelai

Bartzelonako zale zaitugu, aspaldian baduzu pozik egoteko motiboa.

Bai. Azkeneko urteotan gozaten nabil Bartzelonarekin. Talde dotorea egin dute, ikuskizuna ematen duena, nahiz eta zapatuan Zaragozan ikuskizuna eman barik irabazi zuten.

Stamford Bridge-n erakustaldia egin, eta Zaragozan kolpea eman diote Ligari.

Esango nuke Bartzelonak Liga irabazteko bidea nahiko egin duela. Egutegiari begiratuz gero, Madrilek eta Valentziak kontrario gogorragoak dituzte. Besteak beste, bi talde horiek elkarren kontra jokatu behar dute.

Txapeldunen Ligan negargarri ikusi dugu Chelsea-ren zelaia. Kasualitate?

Gauza bat esango dut. Askotan ikusten ditut Ingalaterrako Ligako norgehiagokak, eta han, futbol zelaia alfonbrak dira. Ez dakit ba, kasualitatez Londresko alde horretan egiten duen klimatik edo izango da...

Ronaldinho, Eto'o ala Messi?

Duen etorkizunagatik Messi aukeratuko nuke, bestela Eto'o. Dena dela, Xavi min hartuta dagoenez, hiru horiek baino lehenago aukeratuko nuke Deco.

Tamalez, Eto'o betikoak entzun behar izan zituen Zaragozan. Ze iruditu zitzaizun bere erantzuna?

Berotasunean normala da horrelako erabaki bat hartzea, partidutik alde egitea gura izatea. Baina, profesionala da, eta erabaki horrek taldean izango



XABIER URTZELAI

Zergatik den jakin barik, txikitatik jarraitzen du Javierrek Bartzelona taldea.

lukeen eragina ere neurtu behar luke. Hala, Federazioak ere neurriak hartu beharko lituzke. **Bartzelonako zalea, eta Xabier Azkargorta lehengusua Real Madril taldearendako lanean.**

Bai, kanpoan dabil, futbol eskolak lantzen. Hori, baina, kamiseta gehiago saltzeko egiten dute, *merchandising* modura. **Talde euskaldunak ere jarraituko dituzu, ala?**

Bai, Realeko zalea ere banaiz. **Eta?**

Ba itxura tristea erakutsi zutela atzo. Aurrean Kovacevic eta Nihat barik, Skoubo bakarrik utzita... Taldeari hasiberri itxura hartzen diot, inuzentekeria asko egiten dituzte-eta. Intentzio handiz ibiltzen dira, baina...

"Xavi ez dagoela kontuan hartuta, Deco aukeratuko nuke Bartzelonan"

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Mallorca-R.Madril	2-1
Osasuna-Deportivo	1-2
Alaves-Racing	2-2
Athletic-Vila-real	1-1
Espanyol-Sevilla	5-0
Celta-Cadiz	2-0
Betis-Reala	2-0
Valentzia-Getafe	1-1
Athletic-Malaga	5-0
Zaragoza-Bartzelona	0-2

HURRENGOAK

Vila-real-Alaves
Cadiz-Espanyol
R.Madril-Athletic
Bartzelona-Deportivo
Reala-Zaragoza
Getafe-Betis
Racing-Mallorca
Celta-Osasuna
Sevilla-Athletic
Malaga-Valentzia

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	58	25	18	3	4	60	21
2. Valentzia	50	25	14	3	8	37	21
3. R.Madril	48	25	15	7	3	48	25
4. Osasuna	46	25	14	7	4	33	27
5. Celta	42	25	13	9	3	27	25
6. Sevilla	41	25	12	8	5	32	26
7. Deportivo	40	25	11	7	7	34	27
8. Vila-real	39	25	10	6	9	33	23
9. Atletico	38	25	10	7	8	35	23
10. Zaragoza	33	25	7	6	12	33	34
11. Getafe	31	25	8	9	7	33	33
12. Racing	28	25	6	12	10	23	29
13. Espanyol	27	25	7	12	6	25	39
14. Betis	25	25	6	14	7	23	37
15. Reala	25	25	7	12	4	33	48
16. Mallorca	25	25	6	12	7	26	41
17. Athletic	23	25	5	12	8	27	35
18. Alaves	23	25	5	12	8	26	41
19. Cadiz	22	25	5	13	7	18	35
20. Malaga	20	25	5	15	5	28	44



Kiniela

KINIELA

1. Valentzia-Getafe	X
2. Betis-Reala	1
3. Zaragoza-Bartzelona	2
4. Celta-Cadiz	1
5. Espanyol-Sevilla	1
6. Athletic-Vila-real	X
7. Alaves-Racing	X
8. Mallorca-R.Madril	1
9. Osasuna-Deportivo	2
10. Castellon-Murtzia Hiria	2
11. Numantzia-Hercules	X
12. Xerez-Lleida	2
13. Albacete-Levante	X
14. Almeria-Tenerife	1
15. Atletico-Malaga	1

Harmailatik

Sevillan huts berdinekin



Xabier Urtzelai

Okerrera. Joan zen astean baino okerrago dago Realak, Arkonadaren mutilek partidua galtzarekin batera itxura negargarria eman zuten-eta Betisen kontra. Eta, eskerrak Sevillako taldeak bi egun lehenago Europako Txapelketako norgehiagoka izan zuela, luzapen eta guzti; nekatuta behar zuten Serra Ferrer-en taldeak, baina urdinez jantzita zegoen taldeak eman zuten sentazio hori.

Joko aldetik, hainbat arlotan nabaritu zen hori: Realak defendatzen zuenean, Betisekoak argiago ibili ziren, alderatzeetara lehenago iritsita. Hainbat korner edo falta jaurtiketetan gertatu zen moduan, Realeko jokalariek begira geratu ziren bai lehenengo golean eta baita bigarrean ere. Hala, Riesgok huts egin zuenean, Betiseko Robert-ek lehenengoan ez zuen asmatu, eta bigarren saiakeran egin zuen

gola. Lasai egon zitekeen, baina, Realekoek erreakzionatu orduko beste hiru jaurtiketa egin ahal izango zituzkeen, gutxienez.

Tristura. Defentsa lanetan taldea gaizki moldatu bazen, zer esanik ez erasoan. Xabi Prietok egin zuen apurra. Galduta ibili zen Skoubo (Anoetatik kanpora, daniarra ez da jokalaria bera) Novo noraezean, Uranga jokalaria bakarra atzean utzi ezinka, Stevanovic... Tristura eragin zionean joan zen asteko kontu bera etorri zitzaigun burura. Ez dugu ikasten, ala? Alde horretatik, txistuak Capiri, bere burua lurrera botatzearren.

Datua: Realak lau puntu baino ez ditu eskuratu Anoetatik urrun. Hiru puntu ekarri zituzten Zaragozatik, eta puntu bakarra Santanderretik.



Alavesko zaleak


Bazen ordua daukaten entrenatzaile-presidente-manager-zuzendari horri hartzak erakusteko. Protesta jendetsua egin zuten atzo Gasteizen, balioko du?



Orbaiz

Athleticeko erdilariek aukera ederra izan zuten bere taldeari hiru puntuko saria emateko, eta huts egin zuten penaltia. Hori bai, botatzeko ardura hartzen duenari gertatzen zaio hori.

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



35 lagunek osatzen dute Arrasateko Herensugeak errugbi talde beteranoa. Jokalarien batez besteko adina 44 urte da eta oso filosofia berezia duen taldea da.

Ez dute txapelketetan parte hartzen eta urtean lagunarteko sei bat partidu jokatzeko dituzte. Hilean behin elkartzen dira entrenatu eta lagunarteko afari-bilera

egiteko. Azkenaldian bidaia mordoxka egin dituzte atzerrira errugbiaren aitzakiarekin. Errugbi *xanpaina* egiten dutela diote, xamurragoa eta lasaiagoa.

TXANTON MORALEJA ETA AGUSTIN ARANBURU | ARRASATEKO HERENSUGEAK ERRUGBI TALDEKO JOKALARI BETERANOAK

"Gaztetan kolpeek min txikiagoa egiten dute, baina errugbia bizitza osorako kirola da"

Larraitx Zeberio

OPLA aurkeztu berri dute. Gipuzkoa mailako beterano taldea da. Arrasateko jokalaririk badago bertan?

Agustin: Ez. Arrasatekoak Arrasateko taldean jokatzeko erabaki dugu. OPLA taldean jende asko dabil, Bera-Berakoak, Hernanikoak... Madrilgoak ere bai. Guk nahikoa dugu gure partiduekin.

Beterano taldea da eta elkarte bakarra ei da bere estruktura beterano taldearendako soilik sortu duena.

Txanton: Izan daiteke. Gu Arrasate Errugbi Taldeko sekzio bat gara, baina modu guztiz autonomoan funtzionatzen dugu. Entrenamenduak, egutegia, jantziak, materiala, bidaiak... Dena guk geuk kudeatzen eta antolatzen dugu.

Errugbi elkarte gutxi dute beterano taldea. Zein berezitasun dauka zuenak?

T: Ez da erraza errugbi talde bat osatzea. Lehenik eta behin, gutxienez 15 lagun behar dituzu talde titularra osatzeko. Errugbia kirol gogorra da, eta kasu honetan beteranoak behar ditugu; hau da, 35 urtetik gorakoak. Gau-

zak zaildu egiten dira, baina guk hemen jarraitzen dugu. Seinale gustura gabiltzala.

Zuen taldeak hamar urte bete zituen iaz. Nola lortzen duzue, irautea horren zaila bada?

A: Jokalari gehienak Arrasatekoak gara edo Arrasateko errugbi taldean aritutakoak. Nik uste dut hori oso garrantzitsua dela. Lotura sendoak sortzen dira.

Agustin, errugbi jokalaria zara 54 urterekin. Ez da kirol gogorregia?

A: Beti duzu min hartzeko arriskua, baina gainerako kirolletan ere bai. Egia da kolpe ederrak hartzen ditugula batzuetan eta argi dago erorketa txar bat ezberdin hartzen dela 22 urterekin edo 54rekin. Baina 10 urteotan ez dugu lesio larriarik izan. Behin jokalari batek tibia eta peronea hautsi zituen. Omenaldi bat ospatzen ari ginen eta beteranoek seniorren aurka jokatu genuen. Lesionatu zen mutil hark ez zuen partidu hartan huts egin nahi izan, baina denbora luzea zeraman jokatzeko. Horregatik gertatu zitzaion.

Egia da jokorako arau bereziak dituzuela beteranoen mailan?

T: Bai. Debekatuta dago melea egiterakoan bultzatzea eta baloia sartzen duenak automatikoki eramaten du. Abantaila txiki horiekin jokatzeko dugu. Balloia ostikadaz jotzea ere debekatuta dago 22. lerroa bitartean. Dena eskuz egin behar da.

Talde guztiek errespetatzen dituzte arau horiek?

A: Gehienek. Gainera, oso argi daukagu ez zaigula gogor jokatzeko duten taldeen aurka jokatzeko interesatzen. Horrelakorik ikusten badugu ez dugu euren aurka gehiago jokatzeko. Guk ez dugu txapelketetan jarduten. Gure inguru honetan, gainera, inork ere ez. Askok bidaiatzen duzue kanpora partiduak jokatzeko. Nola antolatzen zarete?

T: Galizia, Valladolid, Madril, Marbella, Katalunia, Frantzia, Portugal eta Uruguain izan gara azken 10 urteotan. Lehenengo, taldeak gonbidatzen ditugu gurera. Partidua antolatzen dugu, elkarre batean afaltzen dugu eurekin, sagardotegira eramaten ditugu... Gero gu euren gonbidatzeko eskatzen diegu. Lagunak egiten ditugu horrela. Emazte eta guzti joaten gara, gainera!

Errugbiak osasun ona du gurean?

A: Bai, baina lan handia egin delako. Kirol hau oso amateurra da. Domeketan, esaterako, errugbi eskola egiten dugu. 10-14 urte bitarteko neska-mutikoak etortzen dira. Gustura etortzen dira, baina gero askok laga egiten dute eta zaila egiten zaigu kadete mailako talde bat osatzea.

T: Nire ustez, errugbia berezia da. Gainerako kirolletan behin 18 urte bete ondoren bi aukera dituzte gazte batek: edo ona da eta bere herriko taldean sartzen da edo laga egiten du. Errugbian denek dute jarraitzeko aukera. Arrasaten, seguruenik, errugbia da 18 urtetik gorakoei kirola egiteko aukera zabalena eskaintzen dien kirola.



Txanton taldeko arduraduna eta Agustin lehendakaria. Biak taldeko jokalaririk.

Abenduan bi partidu jokatu zituzten Uruguain

Uruguaiako Punta del Este herrira joan ziren Arrasateko Herensugeak. "Bi partidu jokatu genituen", esan digu Agustin Aramburuk, "eta Federazioko lehendakari Antonio Vizintin (goiko lerroan 9.a) ezagutu genuen. 1973an Andeetan hegazkin istripua izan zuen errugbi taldeko kide ohia da. *Viven* izeneko liburuak jaso zuen gertakari gogor hura".



Labur

4,91 metroko jauzia eginda Jonathan Perez 8. sailkatu da Espainiako Txapelketan

Atzo, domeka, lehiatu zen Jonathan Perez pertika-jauzilari arrasatearra Anoetan jokatzen zuten pista estaliko Espainiako Txapelketan. Perezek ez zuen duela bi aste egindako bost metroko jauzia errepikatzerik izan. Hirugarren saiakeran eta larri samar gainditu zuen 4,91 metroko barrera, eta 5,01eko jauzia egiten saiatzeko erabakia hartu zuen jarraian. "Oso urduri jarri nintzen, banekielako domina nuela jokoan", adierazi digu Perezek, "zilarrezko domina 5 metroko jauzia lehenengo saiakeran gainditu duen mutil batek eramane du eta". Zortzigarren postuan amaitu zuen lehiaketa arrasatearrak.

Maria Jose Gil arrasatearrak urrea eskuratu du Euskadiko Beteranoen Kros Txapelketan

Euskadiko txapeldun berria da atzo ezkerreko Maria Jose Gil kros lasterkaria. Urrezko dominarekin itzuli zen atzo, domeka, Araitatik (Araba) 65 urtetik gorako kategoria lehiatu zuen arrasatearra. 19 minutu behar izan zituen 3.600 metroko ibilbidea egiteko. "Oso pozik nago lortutako emaitzarekin, baina proba gogorra izan da, gehienbat elur artean ibili ginelako eta haize oso hotzarekin". Datorren asteburuan Oviedon jokatuko den pista estaliko Espainiako Txapelketan izango da Gil. Beste kategorietan M^a Fran Alonsok 17'28ko denbora egin zuen eta Alejandro Altunak, berriz, 20'04koa.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Santa Ana aretoa bete egin zen egubakoitzean 'Todos Nacemos Vascos' ikuskizunarekin | 26
- Huelvako metal meatzetan ateratako argazkien erakusketa dago ikusgai Arrasaten | 27

'Sua' filmaren grabaketan parte hartzera joateko dei egin dute Eneko Aritzaren lagunek | 27

SORKUN ETA TRIBUTE TO THE QUEENS OF THE STONE AGE | KASHBAD OHIAREN AHOTSAK ETA STONER ZANPAKOEK ASTINDU ZUTEN ARETOA

Banda bikaina ahots izozgarri baten zerbitzura

Bide musikal benetan oparoak aurkeztera etorri ziren Sorkun eta konpainia egubakoitz gauean Arrasateko 3.60 aretora

Jon Bereizbar

Zuzenean *Duna*-ko abestirik borobilenetakoekin ekin zion Sorkunek emanaldiari, irmo taula gainean. *Heldu nazazu*-ren erritmo bihurriak girotuta eta saxoaren gidaritza limurtzailearekin kontzerturako augurio onak zekartzan oreretarrak egubakoitzean. *Duna*, bakarka kale-erreturako bigarren lana, aurkeztera etorri zen Kashbad ohia Arrasatera, eta hareazko mui-noak baino gehiago soinu-lan-daretza mardul eta koloretsua aurkeztu zuten. Kanean disko pare bat besterik ez izateko dagoeneko abesti sorta politaren jabe da Sorkun. Lehen diskoarekin *-Onna*, hain zuzen ere eszena-tokia dardarka jar zezakeela erakutsi zuen. *Duna*-rekin, bada, nahiz eta disko lasaiagoa izan, ez

da atzean geratzen Sorkun eta gitarrazko haragi gehiagorekin janzten ditu abestiak. Horren adibide *Nosferatu* kantua da, esaterako: diskoko bertsiotan abesti lauagoa izan badaiteke, zuzeneko moldean zinez erakusten ditu letaginak banpiroak. Aipatzekoa da, era berean, *Duna*-ren euskarri elektronikoak bazter uzten dituela zuzenekoetarako Sorkunek, baina horien gabezia ez da inondik inora nabaritzen. Berdin-berdin, kutsakor jarraitzen dute *Hator*, *Atmosfera* eta halako kantuek Homerren bateriarekin. Izan ere, taldeari dagokionez, ko-drila polita batu du Sorkunek zuzenerako: Liberren teklatu eta dantzetatik hasi eta Kandaren gitarraraino; izan ere, Neubateko kideak zeresan handia dauka proiektuan. Igor Ruizen saxo baritono bikaina ere goratzekoa



JOSETXO ARANTZABAL

Sorkun eta aldamenen Neubat taldeko Kanda, gitarrarekin eta koruetan laguntzen.

da, emanaldiaren bereizgarrietako bat izan zen-eta, gitarra astuneko abesti askoren kontrapuntu eta *Duna*-ri darion xarmaren iturrietako bat dena. Eszenaratze

bikaina, beraz, benetan giro berezia sorrarazten duen *Duna*-ren zerbitzura. CDan atmosferak direnak zuzenean trinkotu eta indarra agertzen dute moldaketek.

BIDE BERRIETAN AURRERA

Orain dela gutxi euskal rockaren ahotsaren moduan aurkezten zuten Sorkun igandekari baten. Bataio lausengariez urrun, Sorkunek azkenaldian euskal eszenan egin den proposamenik freskoenetakoa dakar, *Duna* disko berriarekin batez ere. Hutsune bat betetzera baino gehiago, izaera duen eskaintzarekin aberastera dator oreretarra. Bide berriak aurkitzeko grina atzematen zaio, eta oso eskertzekoa da hori.

'Duna' lana, diskoan lasai antzekoa, indartsu haragitzen da zuzenekoetan

Taldeak aberastasuna eta erakargarritasuna gehitzen die kantuei

Harri Arora arte stonerraren 'erreginen' erritmoarekin

Orain dela hamar urte sortutako banda izanda ere, ondare itzela utzi dute muturreko rockaren munduan Josh Hommek eta Nick Oliverik. Batzuek stonerra deitzen diote, eurek robot-rock moduan bataiatu zuten euren musika (erritmo base trinko eta errepikakorregatik), baina kontua da azken hamarkadako stoner ezstandaren aitzak izan zirela hein handi baten.

Kaliforniako desertuan sortu baina Elorrioko inguru berdeetara ere heldu da *erreginen* herentzia, eta Sorkunek ederto astindu ostean, Queens of the Stone Age taldeari tributu-kontzertua egin zioten Dirties taldekoek eta beste hainbat osatutako bandak. Ahotsaren

aldetik nahiko eskas ibili baziren ere, riff trinko eta zorrotzek, baxu indartsuak eta bateria gogor eta bakunek, guztia kiribil errepikakorrean, ez zuten hutsik egin. Soinu aldetik fin ibili ziren *Do it again* edo *God is in the road* abestietan, nahiz eta *No one knows* mitikoan kale egin, esate baterako.

Hala eta guztiz ere, bertan bildutakoek ez zioten gorputza astintzeari muzin egin, QOTSaren abestiak aski ezagunak direla frogatuta. Taldearen abestirik ezagunenak batu eta ordu eta erdiko saioa egin zuten elorriarrek. Gainera, Elorrioko laukotearen azken aurreko kontzertua izan zen egubakoitzekoa.





Ziorla Autoak



Zabaldu berria

Salmenta eta tailer zerbitzua

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE

Tel: 943 77 01 44





JOSETXO ARANTZABAL

Azkena jo zuen The Pleasure Fuckers, eta Kikeren hutsunea beste taldeetako abeslariekin bete zuten.

OMENALDIA | JAIALDIA ANTOLATU ZUTEN ZAPATUAN JAM ARETOAN, ESTATUKO ROCK SUSTATZAILERIK GARRANTZITSUENETAKOAREN OMENEZ

Bizitza rockari eskaini zion Turmixi agur hunkigarria egin zioten taldeek

Kike Turmixek berak aukeratu zituen bere garaian zapatu gaueko jaialdiko taldeak faborito moduan. Haren argazkia eta errautsen kutxa izan ziren mahaiburu eszenatokian jaialdi osoan

Jon Berezibar

Joan zen urrian gibelego min-biziak jota hil zenetik kontaezina izan dira musikagintzatik, bai Euskal Herrian zein Estatuan ere, Kike Turmixen galera sentitu dutenak. Askok zor zaio punk-rockaren mundutik Debako musikari eta sustatzaileari. Ez dira gutxi Safety Pin Records etxetik hark lagundutako bandak. Burua eta bihotza utzi zuen Kikek musikarengatik, eta zapatuan Bergarako Jamen egindako kontzertuekin ordaindu egin gura izan zioten musikariek egindako lana. Jaialdi itzela izan zen Jamekoa, Euskal Herriko puntako punk eta rock bandek osatutakoa. Kontzertuekin batuta-

ko dirua Kikereren alargunari emango diote.

Kontzertu laburrak baina biziak izan ziren guztiak. Punk-rocka nagusi, azpimarratzekoa da Lobo Electricokoak aretoa girotzeko egindako ahalegina, Santi geldiezinaren merituare-

kin. Zalantzarik gabe kalitatezko taldeak izan ziren zazpiak eta inork ere ez zuen hutsik egin omenaldian, nor berea defenditu zuen. Jendeari dagokionez, talde polita batu zen Jamen, poliki-poliki animatzen joan zena kontzertuek aurrera egin ahala.

FESTAREN AMAIERA

The Pleasure Fuckers Kikereren talde ohiak itxi zuen jaialdi hunkigarria. Hark utzitako hutsunea betetzeko, aurretik jo zuten taldeen kideak igo ziren eszenatokira abestera: besteak beste, Hot Dogeko Jon, NCCko Eneko edo Lobo Electricoko Santi bera. Taldeari dagokionez, orain dela zortzi urte utzi zioten jotzeari eta behin baka-rrik jo dute ordutik hona: Madri- len aurreko asteburuan Kikeri egin zioten omenaldian. Han ere jendez bete zen aretoa, Turmixek utzitako hutsunea handia izan da-eta. Azkenean, Jamen ere musika-ri guztiak eszenatokian batu ziren, ikusleekin batera The Pleasure Fuckerskoekin gozatuz, Kikek gurako zuen moduan.

Omenaldiko taldeak

- EL INQUILINO COMUNISTA | GETXO | Noise-rocka
- ATOM RHUMBA | BILBO | Rocka
- NUEVO CATECISMO CATOLICO | DONOSTIA | Punk hard-rocka
- MERMAID | IRUÑEA | Stoner-rocka
- LOBO ELECTRICO | TOLOSA | Punk-psikodelia
- HOT DOGS | URRETXU | Punk-rocka
- PLEASURE FUCKERS | MADRIL | Punk-rocka

KIKE TURMIXI OMENALDIA

• KIKE GOGOAN IZAN ZUTEN TALDE GUZTIEK KONTZERTUAN



ATOM RHUMBA. Zapatu gauean jo zuten talde guztietatik, agian Atom Rhumba izan zen bereziena, egiten duten musika eklektikoa dela-eta. Rocka, bere zentzu eta joera guztietan, baina funkytik eta rythm-and-bluesetik ere edanda, bilbotarrek erritmo biziko emanaldia egin zuten. Estilo aldetik bereziena izan baziren ere, Kikek berak bere gustukoenen artean zuen Atom Rhumba taldea.



GIROA ONDO BEROTZERA. Jameko eszenatokia ere txiki geratu zitzaion Hot Dogs bandako Jon abeslariari bere ohiko gorputz-bihurritze eta keinuekin. Alde batetik bestera, ezin geratu, aurretik dagoeneko girotuta zeuden ikusleak are gehiago berotu zituzten urretxuarrek. Taldearen berri aspaldi izan barik, zapatuko emanaldian, behintzat, sasoi ez dutela galdu argi eta garbi utzi zuten, zalantzarik baldin bazegoen.



NUEVO CATECISMO CATOLICO. Nahi beste astindu emanez, donostiarrek ezagun egin dituen punkarekin bete zuten gaubelaren erdialdea. Hasierako taldeekin giroa epel-etzen hasi bazen ere, NCCkoek piztu zuten gau osoan iraungo zuen garra. Eneko abeslariak, gainera, The Pleasure Fuckersekoekin abesten amaitu zuen, gainontzeko taldeetako batzuekin. Fin ibili ziren horiek ere jaialdian.



EL INQUILINO COMUNISTA. Zapatuko kontzerturako elkartu ziren atzera ere getxotarrak, aspaldiko partez. Haien arrastorik ez da izan hemen azkenaldian, eta gertu, behintzat, ez dute jo. Hasi zirenean berritzailea izan zen euren gitarraz jositako pop edo rock melodikoa. Urteak pasatuta makinatxo bat lan kaleratu dute, baina freskotasunarekin jarraitzen dute zuzenekoetan oraindik orain.



ELEKTRIKOAK, HORI BAI. Hot Dogseko lagunekin batera, mugitzeko gogo izugarriarekin etorri ziren Bergarara Lobo Elektrikokoak. Behin baino gehiagotan izan ditugu ibarrean gipuzkoar hauek eta kontzertuak ez dira inola ere berehala ahaztekoak izan. Zapatuan ere izerdia bota zuten tolosarrek eta batez ere Santik. Otsoaren letagina era-kutsita ere elektrizitate deskarga itzelak egin zituzten.



MERMAID. Beterano nafar hauek zapatuko jaialdirako espresuki batu ziren. Rockari gogor emanez, stoner etiketa ahoz aho ibili baino lehenago, iruindar hauek dagoeneko riffen jaun eta jabe ziren, oraindik modako estiloa ez zenean ere. Aspaldiko ezagunak dira eta hiru disko bakarrik kaleratu bazituzten ere ondare polita utzi zuten, euren garaira aurreratuta. Dagoeneko bestelako proiektuetan sartuta dabilta kideak.

MUSIKA | GOLDEN APPLE QUARTET TALDEAK 20 URTEKO IBILBIDEAREN OSTEAN 'LOS GOLDEN EN SERIO' SAIOA AURKEZTU ZUEN ATZO ARRASATEN

Serio planta egin nahi izanda ere, Goldenek ez dute umorerik galtzen

Amaia antzokia dezente bete zuten Golden taldeko lau abeslariak. Dezenteko barreak eragin zituzten atzokoan ere

Jon Berezibar

Ikuskizunaren munduan hogei urte daramatzate Golden Apple Quartet taldekoek, eta euren buruari barre egiten badakitela erakutsi nahi izan zuten atzo Amaia antzokian. *Los Golden en serio* ikuskizunaren asmoa horixe zen: "Ez gaitzela bakar-bakarrik barregarri gisa gogoratu. Erakutsi diezaiozun gure publikoari gauza serioak ere egiten ditugula". Horixe izan zen *Los Golden en serio* ikuskizunaren haria, eta horri jarraituz opera abesteari ekin zioten. "Artista serioak gara" aldarrikatzea zen lau abeslarien helburua, eta horretan saiatu ziren arren, aldiro barreak eragiten zituzten publikoarengan.

PUBLIKO EMANA

Jarraitzaileak ziren Amaia elkartu zirenak atzo. Antzokia ia bete egin zuen publikoak eta igaritzen zen ondo pasatzeko asmoz joan zirela. Hasieratik entzun ziren barreak eta txaloak. Ope-



JOSETXO ARANTZABAL

Era guztietako estiloak jorratu zituzten Golden Apple Quartet taldekoek atzo Amaia antzokian.

ra doinuak entzun arren, barreak eragin zituzten Golden sagarrek.

Arrasaten aurkeztutako ikuskizunaren arlorik berritzaileena hainbat genero nahastea izan zen: opera, flamenkoa, zirkua, filmetako soinu-bandak... Era guztietako estiloak jorratu zituzten, betiere a cappella, ohi denez. Tarteka gitarratxoak ere taularatu zuten abeslariak eta musikaz ere lagundu ziren noiz edo noiz.

Eszenografia arina, soila, erabili zuten. Eszenatokia bitan banatzeko panel antzeko bat jarri zuten erdian eta bionbo edo

Ordu eta laurdeneko saioa egin zuten, eta era guztietako generoak nahastu

armairu legez erabili zuten abeslariak, ordu eta laurdeneko ikuskizunean. Ikuskizuna *En serio* izan arren, umoretsua izan zen

Ikuskizuna 'En serio' izan arren, umoretsua izan zen erabat

erabat, eta arina ere bai. Agudo pasatu zitzaigun denbora atzo Amaia antzokian. Hogei urteko ibilbide oparoaren seinale izan zen atzokoa.

Azkenean, bada, jendeak Golden Apple Quartet umorez gogoratuko ditu beti, eurak, tarteka bada ere, serio antzean aritzeko ahalmena dutela erakusteko gogoia izan arren. Gauza serioak, umoreak lagunduta hobe hartzen dira-edo.

ANTZERKIA | **'TODOS NACEMOS VASCOS', OÑATIN**

Glu-Glu produkzioek bete egin zuten egubakoitz gauean Santa Ana aretoa *Todos Nacemos Vascos* antzezanarekin. Garbi ikusi zuten Glu-Glukoek *Cocidito Madrileño*ekin topikoez eta norbere buruaz barre egiteak arrakasta ekar dezakeela eta zer esanik ez Oscar Terolek -Vaya Semanita saioa aurkezle ohia- idatzitako *Todos Nacemos Vascos* liburuan oinarritutako antzezlana baldin bada. Litekeena da laster ibarreko beste herriren batean ikusteko aukera izatea.

KONTZERTUA | **EGUBAKOITZEAN ARRASATEKO GAZTETXEAN**

Egubakoitz gauean kontzertua izan zen Arrasateko gaztetxean. Hiru taldek egin zuten emanaldia: Skacha taldeak Galiziako punk-rocka ekarri zuen, Plan B taldekoek -Bartley Juice talde ohia- Donostiako punk-rocka eta Apunta taldekoek, berriz, street-punka ekarri zuten Azkoititik. Gaztetxea ez zen bete, baina jarraitzaile nahikotxo erakarri zituzten taldeek argazkian ikus daitekeen bezala -baita norbere herriko jarraitzaile eta lagunak ere-.

Latinoamerikako emakumearen gaineko argazki erakusketa

Emakumea bere garapeneko protagonista bezala erakutsi gura du 'Ahots Propioa duten Emakumeak' bildumak

Leire Kortabarria

Latinoamerikako emakumearen egoera eta berau hobetzeko egiten duen lana, horixe ezagutarazi nahi du egunotan Oñatin ikusteko aukera dagoen argazki erakusketa. *Ahots Propioa duten Emakumeak* du izenburua. Hemendik eta martxoaren 14ra bitartean dago bisitatzeko aukera Oñatiko kultura etxean.

Erakusketa Euskadiko Elkarbideak erakundeak antolatatu du (www.cseuskadi.org).

EL SALVADOR ETA PERU

Erakusketa 60 bat argazki osatzen dute. El Salvadorren eta Perun ateratakoak dira. Hain

zuzen, Elkarbideak erakundeak herrialde horietan antolatatu zituen argazki lehiaketa batzuetako lanak dira. Horietan, emakumeak euren garapeneko eta inguruneke protagonista moduan agertzea eskatzen zen. Emakumeak tradizionalki ezohiko diren egoeretan agertzen dira argazki horietan. Argazki handiak 33 dira (81x100 eta 40x51 zentimetrokoak) eta txikiagoak 25 (30x60, 25x40 eta 20x30 zentimetrokoak).

Argazkiei laguntzen testu-panelak daude, 50 guztira. Azkenik, ikus-entzunezko batzuek osatzen dute erakusketa.

Erakusketa egunero egongo da zabalik 18:00-20:00 ordu-tegian.

HEGOALDEAN SORTUA

Euskadiko Elkarbideak erakunde da antolatzailea, eta erakusketa Latindar Amerikako Emakumearen Ahotsa proiektuaren barnean dago. Izan ere, Elkarbideak nazioarteko GKE sare bat da, eta Hegoaldean du jatorria. Euskal Herriko taldea 1994an sortu zen, eta Bilbon dute egoitza.


Hitzorduek

ARGAZKIA ERAKUSKETA |

Joseba Egibar bergarraren lanak erakusketan ipini ditu Arrasate Argitan kultur taldeak

Huelvako Rio Tinto herriko meatzetan egon zen Joseba Egibar argazkilaria bergarra, eta han ateratako argazkiak erakusketan ipini ditu orain Arrasate Argitan kultur taldeak. Arrasateko Kajoi tabernan duzue erakusketa bisitatzeko aukera. Bi bat aste-an egongo da zabalik.

Rio Tintoko meatzetatik burdina, zilarra eta kobrea ateratzen dira, eta historia luzea dute meatzehoriek, 5.000 urtean esplotatu izan dituzte-eta: tartesostarrek eta feniziarrek lehenengo, erromatarrek gero, ingelesen ondoren eta espainiarrek azkenik.



ZINEMA |

• **Manuale d'amore** filma emango dute Arrasaten Gaur, astelehena, emango dute film hori Amaia antzokian, 20:30ean.

• **La joya de la familia** filma emango dute Oñatin Gaur, astelehena, izango da film hori ikusteko aukera kultura etxean, 19:30ean.

• **Bridget Jones: sobreviviré** filma emango dute Elgetan Film hori emango dute etzi, eguaztena, Elgetako Espaloia antzokian.

• **Fugitivos** filma emango dute Oñatiko zineklubean *Fugitivos* delako filma emango dute eguenean, martxoak 2, Oñatiko kultura etxean, 20:00etan.

• **Bordadoras** filma emango dute Arrasaten, zineklubean Eguenean, martxoak 2, emango dute film hori Arrasaten, Amaia antzokian, 20:30ean.

OSPAKIZUNAK |

• **Aingeru Guarda** eguna ospatuko dute erretiratuek Basotxo erretiratuen elkarteke zaindaria da Aingeru Guarda, eta egun hori ospatuko dute etzi, eguaztena. Salda beroa jango dute Basotxo tabernan (12:00); meza entzungo dute Agustindarren komentuan (13:00); gero, bazkaria (14:15) eta dantzaldia izango dituzte.

ANTZERKIA |

• **Todos nacemos vascos** antzezlanerako sarrerak *Todos nacemos vascos* antzezlanaren egingo du Glu Glu taldeak Bergaran martxoaren 31n, eta sarrerak saltzen ari dira kultura etxean eta Elkar liburu-dendan, honako prezioetan: orokorra, 15 euro, eta 26 urte-tik beherakoentakoa, 12 euro.

DEIAK |

• **Patinajea eta zinemara** irteera Eskoriatzan Honako ekintzak antolatu ditu Eskoriatzako Gazte Lekuak: patinajea (martxoaren 3an), Gasteizera irteera zinemara joateko (martxoaren 4an), mahai futbol txapelketa (5ean) eta Eskoriatzan barrena ibilaldia (hilaren 25ean, zapatua).

IKASTAROKAK |

• **Zentzumekin lagundutako idazketa tailerra** Arrasaten Gorputzarekin eta zentzumekin lagundutako idazketa ikastaroa antolatu dute Emakume Txokoan. Martxoaren 7an, 14an eta 21ean izango da. Izena emateko, deitu 943 79 41 39 telefonora, arratsaldean.

• **Antzerki ikastaroan izena emateko aukera** dago Antzerki ikastaroa antolatu du Aretxabaletan Loramendi elkarteak, martxoko bost egu-bakoitzetan egiteko. Trilki-

mailu taldeko Beñat Zamalloak gidatuko du. Izena emateko, jo Loramendi elkartearen txokora.

MUSIKA |

• **Angel (kogollo crew) disko jartzailearen emanaldia** Angel (kogollo crew) disko jartzaileak emanaldia egingo du bihar, martitzena, Arrasateko 3.60 aretoan, 03:00etan. Sarrera doan da.

• **Conxita pop talde katalanaren emanaldia** egingo du Kataluniako Conxita pop taldeak emanaldia egingo du egu-bakoitzean, hilak 3, Elgetako Espaloia antzokian, 22:30ean. 5 euro da.

ERAKUSKETAK |

• **Aratusteetako kartelen erakusketa** Arrasaten Aratusteetako kartel lehiaketara inoiz baino lan gehiago aurkeztu dira, 58. Hala, aspaldiko partez, erakusketa ipini du udalak. Bihar, martitzena, da azken bisita eguna, 17:00-20:00 ordu-tegian.

• **Kontsumoaren gaineko erakusketa** Eskoriatzan *Kontsumoa: janari, jantzi eta zapaten etiketak* delako erakusketa ipiniko dute Ibarraundi museoa. Eguenera, martxoaren 2ra, bitartean izango da. Hauze da ordutegia: 09:30-13:30 eta 16:00-19:00.

Labur

Gaztelekuaren logotipo lehiaketa antolatu du Atxagaztek

Aretxabaleako gaztelekuarendako logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du Atxagaztek.

Hauek dira oinarriak: lanak A-4 formatuan aurkeztu behar dira, eta *Atxagazte* izena agertu behar da; aurkezteko era ezizen sistemaren bidez izango da; eta lanak aurkezteko mugaeguna martxoaren 12a da. Lanekin erakusketa ipiniko dute martxoaren 18an eta 19an. Saria da Atxagazteko irteera guztietan doan parte hartzea. Martxoaren 26an egingo dute sari banaketa.

Umeendako 'Barrebira' ikuskizuna egingo dute bihar Arrasaten

Umeek eta gurasoek *Barrebira* ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute bihar, Aratuste-martitzena, Arrasaten, eta sarrerak erosteko modua dago: www.kutxa.net webgunean, Kutxaren kutxazain sarean eta 943 00 12 00 telefono zenbakian. Bestalde, Amaia antzokiko txarteldegia ere zabalik egongo da. 3 euro da.

Euskal Herriko lagun umoretsu asko etorriko dira ikuskizun hori eskaintzera: besteak beste, Txan magoa, Elvi sabeliztuna eta bere panpinak, eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak.

Film grabaketa batera eta euskal jaialdira joateko dei egiten dute

Sua filmaren grabaketan parte hartzera eta geroko jaialdira joateko dei egiten diete debagoiendarrei Eneko Aritzaren Lagunak kultura elkarteak. Behar adina jende izena emanez gero, Debagoieneko herrietatik autobusak antolatuko dituzte. Maulen izango da jaialdia, martxoaren 11n. Harremanetarako telefonoak hauek dira: 652 71 58 00 (Gipuzkoa) eta 685 73 47 90 (Araba).

Elkarte horrek *Eneko Aritza (Orreagako Gudua)* film laburra egin zuen. GOITBk eman zuen film hori, 16 mm saioan.

Eguraldia



Euria eta hotza lagun hasiko dugu otsaileko azkeneko astea

Gaur ere neguko eguraldia izango dugu eta hotza eta hezetasuna izango ditugu lagun. Eta elur mailak beherantz egingo du. Dena dela, goizetik izango da euri arriskurik handiena; arrasalderako baretu egingo du. Bihar egonkortu egingo da eguraldia, adituek aurreratu dutenez. Lainotuta egongo da, bai-

na ez dira euri lainoak izango. Temperatura, ordea, ez da askorik aldatuko. Iparraldeko hai-zeak joko du.

Eguaztenean ere freskoa igarriko da eta eguenean gorantz egingo du temperaturak pixkatxo bat. Aste amaierarako, aldiz, termometroak berriz ere beherantz egingo du.

Guardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 27	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Martitzena, 28	Ruiz Perez	Maalako errabala, 31 (943 79 14 09)
Eguaztena, 1	Zabala	Zarugaide, 42 (943 77 16 30)
Eguena, 2	Azkoaga	Ferrerias, 1 (943 79 15 15)
Egubakoitza, 3	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)

BERGARA

Astelehena, 27	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Martitzena, 28	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguaztena, 1	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Eguena, 2	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
Egubakoitza, 3	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)

OÑATI

Astelehena, 27	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Martitzena, 28	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Eguaztena, 1	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguena, 2	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Egubakoitza, 3	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)

ARETXABALETA

Astelehena, 27	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 28	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 1	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 2	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 3	Fraile	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 20
10 • 20 • 21 • 28 • 29 • 44
Osagarria: 35 | Itzulketa: 0

Martitzena, 21
5 • 27 • 30 • 40 • 42 • 48
Osagarria: 3 | Itzulketa: 2

Eguaztena, 22
7 • 16 • 21 • 27 • 32 • 44
Osagarria: 28 | Itzulketa: 0

Egubakoitza, 24
5 • 17 • 18 • 26 • 32 • 36
Osagarria: 43 | Itzulketa: 7

ONCE

Astelehena, 20 **84.065**

Martitzena, 21 **65.148**

Eguaztena, 22 **16.898**

Eguena, 23 **95.926**

Egubakoitza, 24 **61.062**

Kupoitzarra (061 seriea)

Domeka 26 **08.088**

Kupoitzarra (021 seriea)

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 23
9 • 30 • 37 • 39 • 40 • 44
Osagarria: 10 | Itzulketa: 4

Zapatua, 25
1 • 2 • 10 • 21 • 23 • 28
Osagarria: 14 | Itzulketa: 3

Zapatua, 25 (Saritzarra)
23 • 32 • 36 • 46 • 48
Osagarria eta gakoa: 6

Gazte zerbitzuak

BEKAK |
• **Arte sorkuntza.**
Hondarribiako Udala. Hiru beka arte plastikoen, argazkigintzaren eta zinemaren arloko arte sorkuntza egiteko. Epea: martxoak 23.

EKINTZAK |
• **Ikasi eta lan egin atzerrian.**
Bergarako Gazteendako Informazio Gunea. Bergarako kultura etxea. Eguna: martxoak 10, 19:00.

IKASTAROKAK |
• **Erlaxazio masajea eta capoeira dantza ikastaroa.**
Bergarako Udala. Ikastaro hauetan izena emateko kultura etxera jo edo telefonoz deitu 943 77 91 60 telefono zenbakira. Epea: martxoaren 25a baino lehen.

• **Gatazkei aurre egiteko modua.**
Hezkide Eskola. Egunak: martxoak 8, 9, 14, 15, 16, 21, 22 (21 ordu). Epea: martxoak 3.

LEHIAKETAK |
• **Film laburren lehiaketa.**
Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak film laburren lehiaketa antolatu du. *Emakumeak Arrasateko Historian* da lehiaketaren gaia eta saria, 1.500 euro. Epea: ekainak 2.

LANA |
• **Informazio eta Izapidetzako bost lanpostu.** Arrasateko Udala. Epea: martxoak 14.
• **Lan poltsa.** Azkoitiko Gurutze Gorrirako. Garraio egokituko laguntzaile eta gidari laguntzaile gisa aritzeko. Epea: otsailak 28.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Antzuola:
• Altzarte okindegia
• Martin okindegia

Elgeta:
• Kioskoa

Bergara:
• Bolintxo okindegia
• Ogizun okindegia
• Konde okindegia
• Olabe okindegia
• Mizpildi okindegia
• Plazako Kioskoa
• Txurrerua Kioskoa

Arrasate:
• Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
• Balantzategi kioskoa
• Portaloiko kioskoa
• Usue paper denda
• Bolintxo Okindegia
• Kurruko okindegia

Aretxabaleta:
• Errasti kioskoa
• Ibarra estankoa

Eskoriatza:
• Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:
• Labidea

Aramaio:
• Plazako kioskoa

Oñati:
• Haritza Kioskoa
• Ibarrondo Kioskoa
• Eskolatxo okindegia
• Arantxa okindegia
• Irizar okindegia
• Ogibari okindegia
• Olakua okindegia
• San Lorentzo okindegia
• Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Janire B. Perez
Otsailaren 26an, 3 urte. Zorionak!
Amatxo, aitita Rafa eta amama Anparo.



BERGARA
Mikel Edroso
Otsailaren 28an, 9 urte. Zorionak!
Gurasoak eta arreba Maria.



BERGARA
Gotzon Arzelus
Martxoaren 1ean, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako.
Goienako lankideak.



BERGARA
June Salaberria
Martxoaren 1ean, 2 urte. Zorionak!
Familiakoak, bereziki Aitor eta Sara.



BERGARA
Maddi Elortza
Martxoaren 1ean, 10 urte. Zorionak
pospolin. Gurasoak eta Amaia.



BERGARA
Izar Morillas
Martxoaren 5ean, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako!
Etxekoak.



ARETXABAETA
Eneko Arkauz
Otsailaren 27an, 6 urte. Zorionak.
Muxu handi bat. Familia.




ARETXABAETA
Eneko L. Armentia
Martxoaren 5ean. Zorionak. Aupa Eneko! Ander eta gurasoak.



OÑATI
Amaia Mantxola
Martxoaren 4an, 5 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.




ESKORIATZA
Aitor Agiriano
Martxoaren 4an. Zorionak zuk dakizun lagun baten partetik.



ELGETA
Yune Morales
Otsailaren 26an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako.



ELGETA
Mikel Canelo
Martxoaren 1ean. Zorionak eta urte askotarako.
Etxekoak.



ELGETA
Ainhoa Azkarraga
Martxoaren 8an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako.

Jaiotakoak



Marieth Ortega Gutierrez
Aretxabaleta • 3,560 Kg. Otsailak 20. Gurasoak: Sidney eta Juan Celio (Kolonbia). Argazkian: Marieht, ahizpa eta gurasoekin.



Maider Irazola Mungia
Arrasate • 3,160 Kg. Otsailak 20. Gurasoak: Atxen eta Iñaki (Arrasate). Argazkian: Maider aitaren besoetan.



Maider Villar Iriarte
Arrasate • 3,460 Kg. Otsailak 20. Gurasoak: Esther eta Asier (Arrasate). Argazkian: Maider amaren besoetan.



Mikel Arantzabal Dominguez
Elorrio • 3,400 Kg. Otsailak 21. Gurasoak: Belen (Elorrio) eta Asier (Bergara). Argazkian: Mikel amaren besoetan.



Naiara Leza Aldama
Oñati • 3,090 Kg. Otsailak 21. Gurasoak: Carlos (Legazpi) eta Mª Jose (Oñati). Argazkian: Naiara amaren besoetan.



Garazi Rodero eta Beitia
Aramaio • 3,850 Kg. Otsailak 22. Gurasoak: Dorleta eta Migel (Arrasate). Argazkian: Garazi ama eta Eneko lehengusuarekin.



Maren Bruña Gonzalez
Eskoriatza • 3,870 Kg. Otsailak 23. Gurasoak: Carmen (Aretxabaleta) eta Carlos (Arrasate). Argazkian: Gurasoekin.



Ekaitz Orguin Gainza
Bergara • 3,035 Kg. Otsailak 23. Gurasoak: Sonia (Bergara) eta Jordi (Bartzelona). Argazkian: Ekaitz, Eneritz ahizparekin.



Aner Zugazti Herrera
Aretxabaleta • 3,450 Kg. Otsailak 25. Gurasoak: Silvia eta Jon (Aretxabaleta). Argazkian: Aner, bapo lo.



Maider Gomez Ibaibarriaga
Arrasate • 3,600 Kg. Otsailak 25. Gurasoak: Bakarne eta Roberto (Arrasate). Argazkian: Maider, bapo lo.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIA**k egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria: irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAn

FM107.7

ARRASATE IRRATIA



Ibai Misol Del Palacio
Arrasate • 2,830 Kg. Otsailak 26. Gurasoak: Fatima eta Iñaki (Arrasate). Argazkian: Ibai, amaren besoetan.

Hildakoak

Julian Errasti Azurmendi
Antzuolan, otsailaren 24an. 64 urte.
Francisco Javier Kerejeta Beitia
Oñatin, otsailaren 24an. 73 urte.
Juana Moiuia Iqartua
Oñatin, otsailaren 23an. 99 urte.

ESKELAK
ASTELEHENKO GOIENKARIAN
85 euro
943 25 05 01

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7
'Igo autobusera' | 11:35

Saharako berri Gurutze Irizarren eskutik

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 30. urteurrena betetzen da gaur, astelehena, eta gaur egungo Saharako egoeraren gainean jardungo du Gurutze Irizarrek. Euskal Lankidetzaren saria jaso berri du Gurutzek.

Oñati Irratia

FM 107.4
'Egurdiko saioa' | 12:15

Jose Ramon Bengoetxea izango da gonbidatua

Jose Ramon Bengoetxea Oñatiko Nazioarteko Lege Soziologia Institutuko zuzendari zientifikoa elkarriketatuko du Miren Urkiola kazetariak. Oraingo ikasturtean iritsitakoa da Bengoetxea; institutuko lehen zuzendari euskalduna da.

Euskadi Irratia

FM 104.4
'Faktoria' | 10:30

Zirkulazio istripuak saihesteko kanpaina

Radio Euskadi

FM 98.2
'Boulevard' | 10:30

Espainiako gerra eta Errepublika: urteurrenak


Loiola Irratia

FM 99.8
'Kalez kale' | 11:30

Martxoaren 8rako ekitaldiak Arrasaten

GOITB programazioa

Astelehena, 27



'Harmailatik' saioan kirolari gainbegiratua 21:15

Julen Iriondo kazetariaren eskutik, ibarreko taldeen ibilbideari gainbegiratua. Hainbat partidutako irudi onenak ikusgai.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Bolivia.
- 15:30 MI. Egurdialdia eta burtsa tartea.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Jaun ta jabe.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik: Mondra-Aloña Mendi derbiaren gaineko laburpen berezia.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 28



'Berbaire' saioan gaurkotasuneko gaiak 22:15

Larraitz Ugarte abokatua eta Ainhoa Larrañaga HUHEZIKo irakaslea Marijo Deogracias kazetariarekin solasean arituko dira, martitzenean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI: Egurdialdia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI: Egurdialdia eta zerbitzuak.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Antzuzelai harrobia.
- 18:15 Munduari bueltaka: Bolivia.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 1



Debagoieneko albisteak 19:45

Egunean zehar bailaran gertatutakoak jarraitu ahal izango ditugu GOITBko albistegiei esker. Deiane Arrietaren eta Julen Iriondoaren eskutik.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Egurdialdia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI: Egurdialdia eta zerbitzuak.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI: Egurdialdia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean: Alberto Iñurategi.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Aretxabaletako Aratustekak.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 2



Angel Ezkurra DJa 'Didjeridu' saioan 22:15

Angel Ezkurra disko-jartzaile bergararra azalduko da *Didjeridu* saioan. Bere ibilbidearen eta zaletasunen berri emango digu Angelek.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak: Urkulu eta Mendiola.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia. Elgetako gauak.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Aretxabaletako Aratustekak.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrratza: Ina Ruforekin transeuropana.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu: Angel Ezkurra.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 3



Iñigo Lamarca 'Ilunpean' saioan 22:15

Oihana Elortza kazetari oñatiarrak Iñigo Lamarca elkarrizketatu du oraingo astean. Arartekoa gertutik ezagutzeko aukera izango dute ikusleek.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Egurdialdia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean: Iñigo Lamarca.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16 mm.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Kamera aurrean



"Aurtengo denboraldirako itxaropenak baditu, badaude txirrindulariak lasterketak irabaz ditzaketanak"

JON URRUTIA |
DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ELK.
Harmailatik, 2006-02-20



"Oñatin antolatzen dugun lege soziologiako masterrak Europako maila du eta horrela onartu digute"

JOSE RAMON BENGOETXEA |
LEGE-SOZIOLOGIA INSTITUTUKO ZUZEN.
Berriak, 2006-02-22

Aratustekak 2006 Aretxabaletan

Saio berezia

Eguaztenean, 22:15ean

Katalin Antxiak eta Beñat Zamalloak aurkeztuta



Ikustekoa!



BERANGO

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

q u a t r o

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles

4 URTE
interes barik

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70





Hamarrekoa

SORKUNDE RUBIO | ABESLARIA

"Kontzertu bezperan ez dut parrandarik egiten, ahotsa zaintzeko"

Oihana Elortza

1. Ze inpresio egin zizun zure izena disko eta karteletan ikusteak? Izugarritzko beldurra nion. Lehen diskoan nire aurpegia jartzera ez nintzen ausartu; bigarrenean bai, ordea. Ohitzen ari naiz, poliki-poliki.

2. Fermin Muguruza da zure aitabitxia? Baietz esan daiteke. Asko animatu nau, berarekin ere egin ditut birak eta asko lagundu dit nire ibilbidean.

3. Zer ikasi duzu biretan? Batez ere nola antolatzen den bira bat: kontzertuak, janaria, soinu probak, lo egiteko tokiak... Pazientzia izaten eta nekatuta sentitu arren aurpegi ona jartzen ere bai.

4. Zer sakrifikatu behar izaten duzu ahotsa zaintzeko? Egia esan, ez dut askorik zaintzen. Erre egiten dut, gauean bakarrik bada ere, pentsa... Kontzertu bezperan ez dut parrandarik egiten; hori zorrotz egiten dut, beti.

5. Zer moduz bizi zara musika soilik egiten? Ekonomikoki, oso gaiz-

ki. Hala ere, gustura nago bizi-modu honekin, nahiz eta beste norbaitek baino diru gutxiago izan. Gorabehera handiak ditu lanbide honek. Ni, ordea, asko engantxatzen naute kontzertuek eta erritmo biziek, eta pozik bizi naiz.

6. Noiztik bizi zara Gasteizen? Duela sei-zazpi urtetik. Errenteriakoa naiz, baina taldekideak Gasteizkoak dira eta errazagoa zen ni hara joatea eurak nire herri-erortzea baino.

7. Nola sentitzen zara Errenterian edo Gasteizen jotzen duzunean? Presio handia sentitzen dut. Lagunak, lagunak gurasoak eta ezagun asko daude herrian. Beste toki batzuetan ere baditut lagunak, baina ezberdina da, erosoago sentitzen naiz. Eta inor ezagutzen ez dudan tokietan, Murtzian, adibidez, erabat aske sentitzen naiz.

8. Arrasaten eta Oñatin ere lagun asko dituzu. Bai, asko. Oñatiko Egoitzek, gainera, bateria jo zuten nire lehen diskoan eta bigarrenean Axibarren ahotsa entzuten da.



Egubakoitzean Arrasateko 3.60 aretara etorri zen Sorkun eta Super heroi ere jantzi zen. Kashbad taldeko abeslaria izan zenak bakarkako bi disko ditu dagoeneko eta oso gustura bizi da musika egiten, nahiz eta beste lanbide baten baino diru gutxiago irabazi. Zinema asko gustatzen zaio, eta, hain zuzen, astean hiruzpalau aldiz joaten da zinemara, litxarreriak eskuetan dituela.

9. Zein izan zen entzun zenuen lehen diskoa? Hamar bat urte nitue-
nean, Scorpions taldearen baladak entzuten nituen eta 11rekin, Madonna. Lau urterekin hasi nintzen abesten.

10. Zer moduzko ikaslea izan zara? Oso txarra; OHOn, adibidez, matematika ez nuen gainditzen. Bi institututatik bota naute eta 17 urterekin ikasketak utzi nituen.



Biharamuna

Eñaut Arriaran

Agur, guztioi

Ederto gogoratzen dut ASTELEHENEKO GOIENKARIAn idatzi nuen lehen aldia. Egunkaria-ren itxieraren inguruko liburua argitaratu berri zuten. Egun hartan, gaur bezala, elurra iragarrita zegoen eta halaxe bota zuten mara-mara. Liburuari *Gezurra ari du* deitu zioten eta halaxe eman nion nik ere izenburua lehen iritzi hari. Orditik bi urte baino gehixeago pasatu da eta elurra gogotik bota duen bezala, oraindik ere gezurra ari du geurean.

Gaurkoa izango da zutabe honetan idazten dudan azkeneko aldia. Oraingoan ere *Gezurra ari du* idatzi nezakeen nire erretratu xeble horren azpian, zikloa amaitzeko, baina esperantzari utzi behar diot lekutxo bat. Ez dut horrelakorik gehiago aipatu nahi.

Arrik Durangora joan nahi zuten egubakoitzean, **Richar Puigdomenech** gitarra jotzailearen kontzertua ikustera, baina kale egin genion. **Alejo** Nantesera bueltatzen da eta agurtu beharrean geunden mahaia handi baten inguruan. Durangora ez ginen joan, baina **Jordi Sanzek** esan zidan gaur kalera-tzen dela **Loquillo**ren zuzeneko azken lana. Bartzelonan eta Bilbon egindako kontzertuak bi DVD eta bi CD-tan bildu dituela eta zoragarria ei da. Zuk, Arri, ezagutuko dituzu grabazioak, iazko ia kontzertu guztietan egon zara-eta. Gainera, beste lagun min batek ere esan dit Loquilloren klan horretan sartzeko irrikatzen dagoela. Ez dakit, baina, agian, familia handitu beharko dugu, **Iker** ere beltzez janztekoa ei da.

Eskerrik asko, denoi, nire hitzak irakurtzeagatik eta beste bat arte.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767
zenbakira

Deiaren prezioa:
1,2 € + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari

Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaitzen zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta Ki jantziak bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan delia eta GPRS sistema alda ematea duan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / ** Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza dutula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL

Pop-Rock
Aitormena | AITORMENA
Aizkolari | AIZKO
Amore amore | AMORE
Begiak okertuta | BEGIAK
Bi Minutero | BIMINU
Dub manifer | DUB
Egunerok | EGUNERO
EH Sukarra | SUKAR
Eos dicen mierda, nosotros amen | ELLOS
Enamorado de la muerte | ENAMO
Etorzikuna | ETORKI

Ezer ez da betiko | EZER
Gora Herria | GORA
Hator Bel-Air | BELAIR
Haizea | HAIZEA
Hegal egiten | HEGAL
Ikusi | IKUSI
Murgia | MURGIA
Inperuen ate joko | INPER
Jokin Uraini hitzak | JOKIN
Kaixo | KAIXO
Lau Teiatu | LAUTUA
Laztana | LAZTANA
Lotuta egon arren | LOTUTA
Loretxoa | LORETXO
Marea Gora | MAREA
Musturrek sartunde | MUSTURREK
Nicaragua | NICARAGUA
No time for love | NOTIME

Salve | SALVE
Sari Sarti | SARRI
Sorginen leizean | SORGIN
Txaboi | TXABOI
Txus | TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela | BEXAMELA
Bokespok | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai | HIK
Itsas ontzi baten | ITSAS
Kupela | KUPELA
Mila galdera | MILA
Nirekin | NIREKIN
Ny Hirahira | NY
Txanpon baten truke | TXANPON

Folk
Arrasalde honetan | SOROTAN
Bai euskarari | BAI
Bakezaleak | BAKEZALEAK
Bizkaia Maite | BIZKAIA
Eperak | EPERRAK
Euskal Herria | EUSKAL
Euskaltan herriaren bakada | EUSKALDUN
Ez da posible | POSIBLE
Furra Furra | FURRA
Galiziar noa | GALIZIARA
Gernikako Arbola | GERNIKAKO
Haika Mutri | HAIKA
Izarren hautsa | IZARREN
Lepon hartu ta | LEPOAN
Marinelaren zai | MARINE
Nere herriko neska baten maite | NERE
Non geratzen den denbora | NON

O! Ama Euskal Herria | OIAMA
Tirauki | TIRAKI
Txoria txori | TXORIA
Zaindu maite duzun hori | ZAINDU

Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Iku Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marjalia | MARJALIA
San Fermín | FERMIN
San Martzialako alardea | SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)

Soinu izena | KODEA
1,2,3,4...Real!! | REAL
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu... Aitareta semea... | AITARETA
Hartu... Ansar | ANSAR
Hartu... Argentinarra | ARGENTINARRA
Hartu... Mexikarra | MEXIKO
Hartu... Miamol | MIAMOL
Independentsia! | INDEPENDENTZIA
Irritzia | IRRITZIA
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! | MILAZU
Txalaparta | TXALAPARTA
Txoxtx | TXOXTX

LOGOAK (sms1)

